



ARGIA



**CATERING
INDUSTRIALARI
AURRE EGIN
DIOTEN
ESKOLA
JANTOKIAK**



Datorren astean

Larrun 204
www.argia.eus/larrun



**INDARKERIA MATXISTA
PANKARTAZ HARAGO
EKITEKO ORDUA**

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 Albisteak
- 10 Gazteluko Plazatik
- 11 Hor dena gailua
- 12 Net Hurbil

IRITZIA

- 20 Asier Blas Mendoza
- 21 Iñaki Antiguada
Oihana Etxebarrieta
- 22 Karlos Gorrindo



Katakarak proiektuaz eta beste hamaika kontuz jardun dugu Hedoi Etxarte iruindarrarekin. (ARGAZKIA: DANI BLANCO)

- 40 LURRAK IRAULIKO GAITU
- 42 DENBORAREN MAKINA
- 44 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENeko EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGi-KONTRA:
FERMIN ERBITI
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 14 | Hedoi Etxarte musikari eta idazlearekin solasean / Reyes Iltxeta
- 24 | Altzaga, sukaldeak kentzeko erasoari eutsi dion eskola jantoki bakarretakoa / Estitxu Eizagirre Kerejeta
- 30 | NUPen, ikasleak euskara irakasle / Iruñe Astitz Larunbe
- 32 | Naturak inspiraturiko jolas-parkea Donostiako Ekogunean / Mikel Garcia Idiakez
- 34 | Espainiako hauteskundeak: giro hotza Hego Euskal Herrian / Xabier Letona
- 36 | Tolosako azoka: mendeak pasa arren, gazte / Igor Agirre
- 38 | Txanponaren beste aldeak: interesik gabeko gazteentzako maileguak / Itsaso Zubiria Etxeberria
- 46 | Garestia al da zinemara joatea? / Gaizka Izagirre

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua


Gipuzkoako Foru Aldundia


DOAN ETA LIBRE

 ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Asier Arrate, Axier Lopez, Eñaut Agirrebengoa, Estitxu Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irueta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.
Produktzioa: Antza S.A.L.
Harpidetza: Iraitz Agirre.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
ekoizpenak: Berdaitz Goia. **Idazkaritza:** Aloña Sorraluze, Bego Zuza.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde, Marijo Aiertza.
Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxa: 943 361048.
 Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473 163.
 Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
 Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
 Interneten: www.argia.eus.
 Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
 Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:

Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.
 Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.

PANORAMA

“Klima kriminalen” bila Parisen

Avaaz mugimenduak COP21 klimaren gailurrean parte hartzen ari diren zazpi “klima kriminalen” argazkiak zabaldu zituen joan den astean Parisen –besteak beste, bost izarreko hotelen inguruetan–. Erregai fosilen industriako langileak, klima aldaketa ukatzen duten taldeetako bozeramaileak... Azkenean, goi-bileran adostutako Parisko Hitzarmenak ez die berebiziko kalterik egingo: kapitalismoaren oinarriak ez dira auzitan jarri, oraingoz.

Argazkia: Avaaz

WANTEE

WANTEE

WANTEE

WANTEE

WANTEE

WANTEE


WANTED WANTED WANTED WANTED WANTED WANTED




WANTED WANTED WANTED WANTED WANTED WANTED



WANTED WANTED WANTED WANTED WANTED WANTED



WANTED WANTED WANTED WANTED WANTED WANTED



WANTED WANTED WANTED WANTED WANTED WANTED



“Egunkaria kriminalizatzeko egitasmo politikoan, EAJK erantzukizun erabatekoa izan zuen”
 Josu Landa (Berrian)

argia.eus-en ikusgai



Jakintza, gure hazi garrantzitsuen


Auto formakuntza, belaunaldiz belaunaldi informazioa transmititzea, ondokoekin jakintzak partekatzea... Jakintza ondasun kolektibo gisa ulertzea aurrera jarraitzeko.



Kate begiak

Goñiko udalekuaren 30 urteko ibilbidean lanean aritu diren eta egun ari diren testigantzak, sentipenak eta hausnarketak bildu dituzte dokumentalean.

■ Fronte Nazionala (FN)
 ■ Eskuina eta zentroa (LR eta UDI)
 ■ Partidu Sozialista (PS) eta aliatuak (Berdeak)
 ■ (Femu a Corsica eta Corsica Libera alderdi abertzaleak)



Frantzia larrialdi egoeratik atera da, behin-behinean

Mikel Asurmendi
 @masurmendi

Frantzia shock egoeratik atera da edo zaintza berezitik, aldi baterako behintzat. FN da frantziarren gaitza. Boterean dagoen PS gaitzaile izan da LR alderdiaren (Les Républicains) mesederako. Sarkozy eskuindarrak –FNren muturrean ia– aurrea hartu die Hollande presidente eta Valls lehen ministroari. FNri aurre egiteko egungo politikaren ezaugarriak honelako epitetoak jaso ditu: manipulazioa, arduragabekeria, difamazioa... Arazoak eta galderak asko dira, baina Frantzia gobernatu nahi duten alderdi nagusiek ez dute erantzunik, ez dute programa politiko argirik, ez dute FNri aurre egiteko politika zehatzik. Manuel Vallsek demokraziaren gaitza herritarren sakrifizioarekin artatu eta sendatu nahi du. Kontrakarrean, Frantziako politikak bizi

duen gaitza frantziar herria emantzipatzeko baitezpadakotzat jotzen du Marine Le Penek.


FN Alemaniako nazien legatutzat joa da. Eskuinak, zentroak eta sozialistek erresistentzia hitza darabilte FNri aurre egiteko politikaz galdetzen zaienean. Bozen balorazioak egindako agerraldietan, FNk darabiltzan lelo berberekin amaitu dute euren diskurtsoa: *Vive la République* eta *Vive la France*. Bi lelo hauek laburbildu dute kanpainaren jitea. Alabaina, eskuin muturraren kontrakoek eskuineko politika sozialak babesten dituzte. Hau da, indarrean dauden eskuineko politikaren oposizioa FN eskuin muturra da. Alternatibarik ez dago. Paradoxikoki, klimari buruzko biltzarrean (COP21) Parisko karrketan manifestatu diren ezkerreko indarrek ez dute egungo demokrazia sisteman (foro eta parlamentuetan) ordezkarri eraginkorrik.

“Venezuela bilakatu da Saudi Arabia berria, munduko botere banaketan giltzarria”

RAUL ZIBECHI, KAZETARI URUGUAITARRA

Petrolio erreserbetan munduko lehen herrialdea bihurtu da Venezuela. Petrolioaren geopolitikan, Saudi Arabia berria da, munduko gaurko eta biharko botere banaketan herrialde klabea. Alderatu zer nolako oihartzuna eman dioten hedabideek Nicolas Maduroren Gobernuaren kontrako manifestazioei, Saudi Arabiako erregimenari ematen diotenarekin. Neurgailu ezberdina erabiltzeko arrazoi nagusietakoa: petrolio.

LA BRECHA (2015/12/03)




GIPUZKOAKO HONDAKINEN BILAKAERA (2010-2014)


Erraustegirik gabeko aroa

Grafiko hauek osatzeko informazioa Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko webgunetik (www.ghk.eus) hartu genuen maiatzean. Handik pare bat astera (Aldundiko hauteskondeek ekarritako kargu aldaketen testuinguruan), informazio hau guztia falta zen.

GIPUZKOAKO UDALERRIEN BIRZIKLATZE MAILA 2014AN



MATERIA ORGANIKOA VS. ERREFUSA



Pertsonako eta urteko zenbat errefus sortzen dugu?



LEZO 36 kg
ASTIGARRAGA 41 kg
LEGAZPI 45 kg
HERNANI 57 kg
ANTZUOLA 62 kg
OÑATI 65 kg

70 kg baino gutxiago



IRUN 353 kg
DONOSTIA 288 kg
ZARAUTZ 268 kg
AZPEITIA 238 kg
LASARTE-ORIA 224 kg
EIBAR 215 kg

200 kg baino gehiago



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

Ia 54.000 lagun, Osakidetzan 1.000 lanpostu lortzeko lehian

Unai Brea
@unaibrea

Abenduaren 12 eta 13an milaka pertsona bildu ziren Barakaldoko BEC erakustazokan, Osakidetza 2014-15eko enplegu publiko eskaintzari (EPE) zegoen probak egiteko. Azaroaren 12 eta 13an Donostian egindako azterketak kontuan hartuta, guztira 53.930 lagun lehiatu dira Osakidetza eskaini dituen 1.014 lanpostuak lortzeko, enpresak berak emandako datuen arabera.

Osakidetza, EPEaren berri emateko hedabideei igorritako prentsa-oharreen, azpimarratu zuen legearen arabera aurten eskaini zezakeen lanpostu kopuru handiena eskaini duela. Nola-bait, eta haiek aipatu gabe, sindikatuak emandako erantzuna izan zen, azken urte bietan Osakidetza eman den lan gatazkaren muin-muinean baitago EPEa.

Eskaintako 1.014 postuetatik, erdia baino ez dira berriak. Beste erdia barne promoziokoak dira, hau da, dagoeneko Osakidetza langile direnak bakarrik aurkeztu daitezke horiek eskuratzeko probetara. 508 lanpostuberriko eskaintza oso urrun dago sindikatuak

–Osakidetza ordezkariak duten guztiek– eskatzen dutenetik. Haien ustez, gutxienez 3.000 lanpostu finko berri sortu behar dira, nola herritarrei kalitatezko zerbitzua emango zaiela hala behar diren lan baldintzak egokiak izango direla bermatzeko.

Gaur egun 26.000 inguru langile finko ditu enpresa publikoak, baina egunero jardunean askoz gehiago dabilta. Behin-behinekotasun tasa %35 ingurukoa dela kalkulatu dute sindikatuak. ELA argitaratutako *Osakidetza prekaritateari buruzko txostena* azterlanaren arabera, gogoan izan behar da EAeko batez besteko behin-behinekotasuna %20koa dela, eta Europar Batasuneko %14koa. Haien ustez, Osakidetza portzentajea ez litzateke %7tik gorakoa izan behar.

Langile kopuruari buruzko eskakizunaz gain, sindikatu batzuek proposamena egin dute EPE erdia aldatzeko, LABeko Edurne Agirreren ahotik jakin dugunez. Besteak beste, gaur egun indarrean dagoenak behin-behineko langileei eragiten dien kalteagatik. “Deialdi guztietara aurkeztu behar dute, diru kopuru bat ordainduta gainera, lan poltsatik kanpo geratu nahi ez badute”.

EKONOMIAREN TALAIAN

Bonbardatzeko eta hiltzeko zergak



Juan Mari Arregi

Europar Batzordean zerga arauak sakratuak dira, bonbardatzeko eta hiltzeko izan ezik. Erakunde honek bere bazkideen defizit publikoaz politika oso zorrotza darama eta gobernuek murrizketa sozialak justifikatzen dituzte (enpleguan, menpekotasuna arintzeko laguntzetan, pentsioetan, osasungintzan...) esanez Bruselak inposaturiko defizit helburuak bete behar dituztela. Defizit sakratuarentzat ez dago salbuespenik, ez behintzat gastu soziala handitzeko. Hertura eta murrizketak beste irizpideen gainetik daude, salbu eta armetan eta defentsan gastatu behar denean, orain Frantzia bezala, Estatu Islamikoak eraso izan denean. Europar Batzordeak defizit publikoan zituen exigentziak ez betetzea baimendu dio Hexagonari: Barne Produktu Gordinarean puntu erdi edo 10.000 milioi euro esan nahi du horrek. Armak erosteko zergatan bidea libre du Frantziak beraz, bonbardatzeko eta hiltzeko. AEBen, Txinaren eta Errusiaren ondoren, Frantzia da aurrekontu militar handiena duen herrialdea –62.000 milioi euro urtean, BPGren %2,2–.

Ezagun ditugu Europako ateetan oso tantaka hartzen ari diren Siria, Irak eta Afganistango errefuxiatuen dramak. Europar-amerikarren politika kolonialista, inperialista, geostrategiko eta belikoaren biktima dira, baina haientzat ez dago dirurik. Bai ordea herri haiek bonbardatu eta hiltzeko. Europar Batzordea koherentea da arma industriaren lobbykiko eta den bezalakoa azaldu zaigu: merkatuen Europa, kapitalaren Europa. Ez dago dirurik politika sozialentzat, defizit publikoaren helburuak bete behar direlako. Badago dirua bonbardatzeko eta hiltzeko, defizitak ziztuan gora egiten badu ere.



NEREA LIZARRALDE / IRUTXULOKO HITZA

Metroaren aurkako lehen mobilizazio jendetsua Donostian

AZPIEGITURA HANDIAK. Ez dela beharrezkoa aldarrikatu eta metro proiektua geratzeko eskatu dute 2.000 herritarrek baino gehiagok Donostian. Sator Alaia kolektiboak deituta, gaiaren kudeaketan gardentasun eza nabarmendu dute. 200 milioi eurotik gorako kostua izango duela gogorarazi eta diru hau bestelako zerbitzu sozialetara bideratzeko eskatu dute.

Parisko klimaren gailurra: adostutakoa ez da nahikoa

Unai Brea
@unaibrea

Iragarrita zegoen legez, lehen aldiz munduko estatu guztiak barne hartuko dituen hitzarmena adostu dute Parisen egindako COP21 klimari buruzko goi-bileran. Adostutakoa lausoegia da, ordea. Proposatutako mekanismoak ez dira nahikoa izango ezarritako helburuak betetzeko.

2 °C-tik behera

Helburu handinahia ezarri dute: Lurreko tenperaturaren igoera, industrializazioaren aurrekoarekin alderatuta, 2 °C-tik "ondo behera" mantentzea eta ahalegina egitea 1,5 °C-ko muga ez gainditzeko.

Murrizketa planak ez dira lotesleak

AEBak jarritako ezinbesteko baldintza izan da. Herrialde bakoitzak bost urtero aurkeztu beharko dizkio NBERi gas berotzaile igorpenak murrizteko dituen planak, baina ez dira lotesleak izango.

Klima neutraltasuna

Petrolio ekoizleen garaipena izan da "deskarbonizazioa" ez aipatzea. Horren ordez, neutraltasun klimatikoa jarri da helburu: gas emisioak orekatzea basoek xurgatzen dutenekin eta bitarteko teknologikoekin.

KRISIA



%6,6

da krisi ekonomikoak eraginda azken sei hilabeteotan laguntza psikologikoa eskatu duten biztanleen kopurua EAEn, Deustoko barometroaren arabera.

%24,7

dira dentistara joateari uko egin diotenak, %5,2 arropa eskatu dutenak eta %3,9 jana eskatu dutenak.



FRANKISMOKO KRIMENEN AURKAKO PLATAFORMAK SARIA

Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzarako idazkaritza nagusiak giza eskubideen arloko René Cassin saria eman die frankismoaren krimenak auzitara eraman dituen plataformako kideei.



ZUBEROAKO LEHEN HAURTZAIN ETXE EUSKALDUNA

Ttiti Ttapa elkarteak iragarri du Xübükota euskarazko haurtzain etxea zabalduko duela Maulen, 2016ko urtarrilean. Zuberoan haurtzaintza zerbitzuak osoki euskaraz eskaintzen dituen lehen tokia izango da.



ORDAINSARIA LANERA BIZIKLETAN JOATEARRIN

Frantziako Gobernuak martxan duen programak 25 zentimo kilometroko ordaintzen die lanera bizikletan doazen langileei. Sei hilabeteko programa pilotua da, eta arrakasta badu Estatu osora zabaldu lezake.

Ingeles B ereduak zer eman dezakeen badakigu



Xabier Letona

@xletona

NAFARROAKO gizartean azken hilabeteetan ika-mika handia piztu da Ingelesa Ikasteko Programa (IIP) eta Hezkuntza Sailak iragarritako enplegu eskaintza publikoaren inguruan. Uxue Barkosen gobernuak izan duen aurkako lehen kale mobilizazio esanguratsua ingelesaren kariatara izan da: British-IIP programak dituzten eskoletako guraso elkarteek deituta milaka pertsona elkartu ziren iragan larunbatean Iruñean, udaltzaingoaren arabera 3.200. Ikasurte hasieran Nafarroako Gobernuak erabaki zuen IIPren zabalkundea geldiaraztea azterketa bat egin eta bere emaitzak ongi ikusi arte. Jose Luis Mendoza sailburuak argi esan zuen eredu hauek D ereduak kaltetzeko abiarazi zirela.

Azken bi hamarkadetan Nafarroan lana bilatzeko askoz garrantzitsuagoa izan da euskara jakitea ingelesa baino

LEHENAGOTIK gutxi batzuk baziren ere, 2000ko hamarkadaren erdialdean hasi ziren ugaritzen ingelesezko hezkuntza programa hauek, British, HTB (Hizkuntzen Trataera Bateratua, TIL erdaraz)

edo geroago IIPrekin. Kasualitate gutxi da hemen, D ereduak gorakada handienak izandako garaietan egin ziren, sare publikoan matrikulazioak %27-28raino igo zuenean. IIPen gorakadarik handienak 2013-14 eta 2014-15ean eman ziren, hurrenez hurren 20 eta 30 zentzora hedatuz. Gaur egun sare publikoaren A eta G ereduko zentruen %80k eskaintzen du programa. D ereduko hiru zentzutan bakarrik hedatu da, hori ere oso esanguratsua.

Nafarroako Gobernuak programa boluntario gisa saldu ohi du, eskolak eskatu eta Gobernuak eskaini. Errealitatea, baina, oso bestelakoa da eta zentru asko behartuak izan dira programarekin hastera, horien artean, esate batera, Sartaguda, Sesma edo Falcesko eskolak. 2013an Eilas sindikatuak ere salatu zuen IIP inposatzen ari zela eskola gehienetan.

Eskuarki, eta eskaintza zabalagoa edo murriztagoa izan badaiteke ere, ingelesa eta gaztelania %40-60an banatzen da ikasgaietan. Hau da, B ereduaren gisako bat da, jadanik ia desagertua dagoen eredu, urte luzetan oso emaitza eskasak eman zituelako bai euskararen gaitasunean bai konpetentzietan. Hau da, ondo baino hobeto dakigu hori eredu txarra dela, baina ingelesaren zerua salduz programa hori finkatu da sarearen zati handi batean. Prestigioa, mundua, lana... horiek dira amuak. Baina zer dago egiazki amuon atzean? Kea batez ere.

JUAN CARLOS MORENO CABRERA: “Denok gure seme-alabak multinazionalitateko goi-mailako exekutiboak izateko hezten ari al gara bada?”. Ingelesaren eskaintza dela eta, aurtengo martxoan ARGIA hizkuntzalari madrildarrak

esandakoa da. Ingelesa ongi ikasi behar dela ez dago zalantzarik hezkuntza komunitatean, kontua da “ongi” zer den adostea. Mitorik garrantzitsuena da ingelesa ia lanaren pareko dela. Beharko da atzerritarrekiko harremanak eskatzen dituzten lanpostuetan, baina horiek gutxienak dira Nafarroan. Azken bi hamarkadetan, Nafarroan lana bilatzeko askoz garrantzitsuagoa izan da euskara jakitea ingelesa baino. Euskaldunon garaipen handietako bat da hori gaur egun. Eta hori da, funtsean, euskara Nafarroako hizkuntza delako, milaka familiak erabaki dutelako edo euskaraz bizi nahi dutela, edo haien seme-alabentzat euskara nahi dutela, bai bertakoa delako, bai lanerako lagun diezaiekek-lako.


D ereduak hautatzen dute horretarako, murgiltze eredu delako hizkuntza batean bizitzeko gutxieneko gaitasuna eskaintzen duen bakarra. Hala ere ez da nahiko euskaraz bizitzeko, hezkuntza gizarteko alor bat besterik ez delako. Klabea, azken finean, zera da: zertarako balio behar die ingeles elebitasunak ikasleei ikasketak amaitzean? Gauza askorako, zalantzarik gabe, baina hizkuntza horretan bizitzeko ez bederen. Euskaldunok nahiko esperientzia pilatu dugu jakiteko zein elebitasun maila eskaini dezakeen B ereduaren gisako batek.

Egia esan, esanguratsua da British eredu eta PAI zentruen guraso elkarrean federazioa den Britilaren webgurea jotzea haiek elebitasuna nola ulertzen duten jabetzeko: dena gazteleraz da, ez du inongo aukerarik ezer ingelesez irakurtzeko. Hori bai, haien helburuetakoa da “sustatzea eta antolatzea kultur aktibitateak ingelesez”.

EZKER ABERTZALEA EZ DA FRANTZIAKO
ESKUALDE-BOZETARA BURKEZTU

EUSKAL HERRIA
UKATUA ETA
BOTEREGUNE
ARRAZETIK
URRUH...

IRUÑEA-BORDELE: 300 KM
IRUÑEA-MADRIL: 400 KM



Estatu Islamikoak nahi du kalifato zaharrera itzuli sare sozialen gainean



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Estatu izan nahi lukeen egitura finkatzeko ahaleginean ari da El Irak eta Sirian kontrolpean dauzkan eremuetan: otomanoen inperioaren ezaugarriak orotarazten dituen kalifato bat, basailutza harremanetan oinarritua, eta aldi berean sare sozialen bidez komunikazioa erabiliz mugimendu sozial modernoak bezain arin.



Hiru edo bost milioi jende bizi dira 2015eko abendu honetan Estatu Islamikoak Iraken eta Sirian kontrolpean dauzkan eremu zabaletan. Ikuskizun dago egituratze politiko berria ondo hilabeteetan norantz bilakatuko den hura desegiteko potentzia handiek antolatu duten ofentsibaren sutan, baina dagoeneko esperimenduak hartu du munduak kontutan hartzeko moduko gorpuzkera.

Matthieu Rey irakasle frantsesak azaldu du Estatu Islamikoak bereganatuko eremuetan antolatu duen egituraketa. Unibertsitateko doktore gaztea, arabiera ikasia, Europar Batasunaren diru-laguntzaz Udaberri Arabiarrak ikertzen dituen WAWAW programaren barruan aztertu du gaia, gero *“Aux origines de l’Etat islamique”* artikuluan laburbildu duena.

Mendebaldearen amesgaiztoa bilakatu denez, Elren ezaugarri batzuetan arakatu dute hemengo hedabideek bezala ikerlariak: basakeriaren erabilera, tximistaren abiadan hedatzeko ahalmena, Ekialde Hurbila hankaz gora jarri izana, mundu osoko gazteak erakartzea... Aldiz, Reyk erreparatu dio islamistek mugimenduaren izenean aldarrikatzen duten horrexiki: estatu izaerari.

Hasteko, dio Reyk, askok uste dutenaren kontra Elk ez ditu leherrarazi bi estatu klasiko, ez behintzat mendebaldarrok estatutzat jo ohi ditugun horietako bi. Bai Siria eta bai Irak XX. mende

bukaeratik zeuden estatu moduan gain behera etorriak.

Biak datoz baathismotik. 1960ko hamarkadan, deskolonizazio urte haietan, Sirian bezala Iraken agintea Baath mugimendu nazionalista arabiar sozialistak hartu zuen. 1970.era bi mugimendu berezitan etsaituak zeuden. Irak eta Iranen arteko gerra odoltsuak are gehiago urrundu zituen elkarrengandik, Siriak Iranen alde jokatu.

Baina bietan, Matthieu Reyk elkarriketatu dituen adituen arabera, agintari nagusiek antzeko jokabidez usteldu ziztuzten hasierako estatu moderno aurrezazale itxaropen haiek.

1970tik 1990 artean bi sistema politikoek instituzio bihurtu zuten ez-e-gonkortasun politikoa, suntsituz aurre egin ziezaiaketen antolaketa politiko eta sozial oro. Saddam Husseinek Iraken eta Jafez al Assadek Sirian agintea beren pertsonengan zentralizatu zuten, fideltasun pertsonala ezarritik gizaratean aurrera egiteko edo hondoratzeke lege. Ordainetan nor bere herrialdea taxuz egituratu gabe laga zuten.

Iraken apokalipsia lehertu zen 2003an AEBek inbaditu zutenean; Sirian 2011n herritarren matxinada lehertu eta laster gerra zibil bihurtzean. Estatu Islamiarra 2004an agertu zen Iraken, aurrez indarra hartzen ari ziren tribuen egiturak beretzako baliatuz. Baina David Petraeus jeneral amerikarraren estrategiak lortu zuen hura men-

deratzea. 2009rako Irakeko matxinada kontrolpean zeukatela uste izanda, Nuri al Maliki xiita agintean jarrita 2012ran AEBetako armada Iraketik irteten hasi zen. Elren bigarren eraso antolatuko du Abu Bakr al Baghdadik eta berehala Siriara zabalduko.

Basailutzan antolatu egitura anitza

Matxinoei antzeko moduan erantzun diete Bagdadeko eta Damaskoko gobernuak: polizia eta armada erretiratu kontrolatzeko nekezak diren eremuetatik, disidentzia bihurtu barneko etsai, herri-tar multzo osoak kriminalizatu...

Justu horrek eman dio hauspoa Estatu Islamikoari, eskueran utziz gizarte atal osoak, lur eremu aginterik gabekoak. Eta 2013ko apirilaren 9an Irak eta Siriako Estatu Islamikoa ofizialdu zuen. Baina nola ari da estatu hori gorpuzten?

Hasteko, lurraldea kontrolatuz itzal egingo dion edozein aginte kanporatuta. Horretarako lurralde osoa dago *check point* kontrolez josia. Barneko poliziarik ezean, Elk kontrol horien bidez gainbegiratzen ditu jende eta salgaien trafikoa, Estatuaren ikur sinboliko ere badirelarik.

Baina kanpora begirako mugarri garbirik ez du Estatu Islamikoak. Ahalegin militarra etsaiak menderatu eta eremuak konkistatzean datzan arren, eten gabe aldatzen dira fronteak eta talde txikien arteko aliantzak, muga fisikoak ezartzea zaila da. Bestalde, Elk ez du



Al Nusra mugimenduko gudariak herritar baten nortasun agiria kontrolatzen Alepoko karriketan ipinitako 'check point' batean. Matxinoek kontrol gune ugariokin markatzen dute beren aginte sinbolikoa morrontza zor dieten herritarren eta egituren aurrean.

NORTH COUNTRY PUBLIC RADIO

nazioartearen onarpenik bilatzen, are-
rioen kontrako borrokak definitzen du.
Baina Abu Bakr al Baghdadik agintzen
duenetik, Elk bere menpe hartuei ba-
sailutza aitormena eskatzen die. Erdi
aroa edo otomanoen inperioa berpiztu
balira bezala, bideoek erakusten dituzte
konkistatuko herrietako buruzagiak
eta herritarrak banan bana agintarie-
kiko morrontza onartzeko erritua bete-
tzen.

Basailutza harreman honek betek-
zunak ematen dizkie bi aldeei, eta ego-
kitzen da lekuan lekuko ezaugarrieta-
ra kasuistika zabalean. Adibidez, Deir
el Zur hiri inguruetan Siriako Armada
Askeko jeneral batek dilema hau zeu-
kan: edo Elren kontrako borrokan segi
galtzera kondenatuta, edo morrontza
aitortu Elri. Jeneralak basailutza pertso-

nalki onartu zuen, kolpe berean Elren
lekuko ordezkari bihurtuz.

Aldiz, Alepo inguruetan Ahrar al Sham
mugimendukoak ziren gudari batzuek ka-
lifa berriari obeditzea egin zioten zin, az-
ken erasoan beren estatu goren osoa aka-
batu ostean. "EI -dio Matthieu Reyk- sare
malgu bat da, bere geometria aldakorrean
taldeek menpekotasuna edo obeditzea
aitortzen dute, eta ordainetan eskubide
multzo baten jabe egiten dira". Zentroa-
ren kontrola badirudi lausoagoa dela lan-
da eremuetan, zurrunagoa hiriguneetan.
Buruzagitzak gerra batean eguneroko bi-
zitzako beharrak segurtatzearekin nahiko
lan duenez, lekuko erakundeek sarritan
lehen bezalatsu funtzionatzen segitzen
dute, auzitegiek esate baterako.

El zentralaren diru sarrerei dagokie-
nez, ezaguna da horiek eskuratzen di-

tuela lehengaien salmentatik -petrolio
batik bat-, eguneroko salgaien zergeta-
tik eta gerrako harrapakinetatik.

Hala ere, estatu egituren eskema ho-
nek oroitarazten digun arren otoma-
noen inperioa, Elri munduan oihartzun
izugarria eman dion komunikazioa
marketin oso moderno batekin anto-
latuta dago. Zenbait ataletan, Elk sor-
tzen duen komunikazioak antza gehia-
go dauka Gobernu Kanpoko Erakunde
baten estiloarekin, talde lokal bakoitza
bere propaganda sortzen, denak elka-
rri oihartzun eginez sare sozialen ere-
duan...

Horra EI zango bat duela antzinako
basailu harremanetan jarria eta bes-
tea bai forman eta bai diskurtsoan ekin-
tza publiko postmoderno bat sustatzen
duen komunikazio txit berritzaileen. ■



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Hedoi Etxarte, Katakarak proiektuko kidea

«Langile jendea ezin duzu punk-rocka eta hip-hoparentzutera kondenatu»

Pentsalaria, idazlea, liburu saltzailea eta tabernaria. Katakarak Iruñeko liburu-denda eta pentsamendu eta eztabaidarako guneko kidea, bertako agenda kudeatzen du eta irakurle taldeez arduratzen da. Azkarra, jantzia, kritikoa, eta zenbaitetan, kaustikoa.



Reyes Ilintxeta

@ReyesIlintxeta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Noiz arte har daiteke gaztetzat pertsona bat?

Bereizketa horiek ez zaizkit gustatzen. Aitak esaten dit txikitan asko gustatzen zitzaidala jolastea eta gaur egun ere bai. Gaztaroa, nerabezaroa bezala, XX. mende hasieran jende gutxik izan zezakeen zerbait da. XXI. mende hasieran, jende askok pentsatzen du badaukala, baina segur aski ez dauka.

Jolasteaz gain, txikitan zer zenuen gus-tuko?

Nire inguruko figurak aitona-amonak izan ziren. Oso erakargarriak egiten zitzaizkidan haiek, haien lagunak... iruditzen zitzaidan bazutela jakintza, bizitzaren aurrean beste tempo bat. Argi zuten zer den langilea izatea, eta orain aldiz, despiste handia dago horren inguruan. Jende xumea zen, oso narratiboa. Gaur egun dena asko estandarizatu da. Jendea desberdina izateko izugarritzko eskizofrenian murgildu da, azkenean denak berdinak izateko.

Bi anaia zarete. Ziargi zu baino gazteagoa da eta hala ere esaten duzu berarengandik gauza asko ikasi duzula.

Bai. Ikasi nion lehenbailehen hasi behar dugula lanean munduan. Berak nahiko

garbi izan du, adibidez, kontu praktikoetan iaioa izaten saiatu behar duzula, baina goi mailako kulturarekin harremana izanik. Bera bada etxeko hoditeria aldatzeko gai, eta aldi berean, 14 urterekin Frantziako poeta surrealista irakurtzen zituen. Konbinazio horiek nire bizitzan asko bilatu ditut.

Institutuan izan zenuen lehen talka politikoa. Zer dela eta?

Biurdana institutuan nengoen. Garai hartan Elkarritik oso gertu nabilen eta oso eskuin muturreko joera zuen irakaslea zegoen. Irakeko gerra garaia zen eta nik esan nuen asteburu horretan Aznar etorria zela Iruñera, Alde Zaharra militarki okupatzera, batzuei esatera hiltzaileak zirela. Eta bera Irakeko gerrara soldaduak bidaltzen. Emakume hura erotu zen, oihuka hasi eta harrezkeroztik ez nuen azterketarik gainditzen sistematikoki. Horregatik aldatu nintzen beste toki batera, Eunatera. Han bikain izan nintzen. Oso garbi ulertu nuen zer den boterea. Irakaskuntzan, beste edozein alorretan bezala, badira psikopatak eta izugarritzko boterea dute.

Musika ikastea zer izan da zuretzat?

Hasieran hobbya izan zitekeena, gaur

egun unibertsitateak baino gehiago irakatsi didan zerbait da. Unibertsitatean, tamalez, oso etsipen handia hartu nuen. Irakasle grinatsuak aurkitzea espero nuen, baina ez zen horrela izan. Jakintzaren tenplua hutsik dagoela ohartu nintzen.

Berlingo Unibertsitate Librean urtebete egin zenuen.

Oso positiboa izan zen, eta Gasteizera itzultzea oso gogorra, are argiago nuelako hemen nituen irakasle gehienak ez direla ezertan adituak eta eskola aspergarriak ematen dituztela. Zorionez, Boloniako afera zela eta mobilizazio txiki bat egin zen gure fakultatean eta jende interesgarri asko ezagutu nuen. Klaseko giroa, oro har, oso tristea zen, eta konterbatoriokoa aldiz, erabat kontrakoa. Jendea askoz baldintza txarragoetan lanean, baina pasio ikaragarritz.

Profesionalizatzea ez duzu inoiz pentsatu?

Ez da ona gauzak ikastea gero horrek ogibidea emango dizulakoan.

Hizkuntzak ere zure pasioa?

Hizkuntzak ikastea ikasteagatik absurdoa da. Ingelesa ikasi dut testu batzuk



Hedoi Etxarte Moreno

1986, Iruñea

Biolinean lizentziaduna da Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan eta Itzulpengintza eta Interpretazioan EHU. Musika klasikoan, Euskal Herriko Gazte Orkestrako partaide izan da, bestela, Fermin Muguruzarekin kolaboratu du, besteak beste. Bi poesia liburu kaleratu ditu: *Suzko lilia* (2008) eta *Sinplistik* (2012). 2009an *Ihes ederra* lehen euskal irudi-eleberria sortu zuen lehengusu Alain M. Urrutiarekin. *Duela gutxi Wagner auziaz* argitaratu du.

ulertu nahi banituen beste erremedio-rik ez nuelako. Jaio garen lekuan jaiota, logikoa da euskara, gaztelania eta frantsesa jakitea. Ingelesarena beti urrutia-go bizi izan dut, urrutia-go dagoelako. Ez dut ulertzen gaur egun hemen Nafarroan jendeak duen behar hori.

Euskara irakaslea izan zinen. Nolako esperientzia?

Gasteizko Udaberria euskaltegian hiru ikasturtez aritu nintzen. Han ikasi nuen zer den lan egitea eta nagusiek ez dutela zertan izan saltzen dizkiguten deabru beltzak. Bestalde, ikusi nuen nola EAEn jende langile asko euskara ikasten ari den lan hobe bat izateko eta nola ez den planteatzen lanaren afera modu sano batez. Kontuan hartu behar da bade-la EAEn populazioaren parte bat oso kolpatua, oso lumpena, euskaraz ez dakiena, baina inor ez da haientzat ezer pentsatzen ari.

Hori gerta daiteke orain hemen Nafarroan?

Ez dut uste hemengo erronkak eta EAEkoak berdinak direnik. Hori ere aski garbi ikasi nuen Gasteizen: EAE eta Nafarroa bi gauza desberdin dira, EAEko jendeak, eta espresuki abertzale independentistek, ez dute batere jaramonik Nafarroarekiko. Nafarroa asko aipatzen dute eta uste dute Nafarroa ezagutzen dutela, baina ez da horrela, Donostian bizi direnek Gasteiz ezagutzen ez duten bezala.

Gasteiztik La Hormiga Atómicara?

Langabezian gelditu nintzen sozialistek egin zuten murrizketaren ondorioz. Harremana nuen La Hormiga Atómica liburu-dendako jendearekin eta ondo-

Harreman sendoen beharrean

“Katakraheko liburu saltzaile jubilatu nahi nuke. Behin-behinekotasuna bukatu behar dugu, gure garaiko erronka handienetakoa da, ez soilik prekarietatearen zentzuan, baizik eta tempoari dagokionez ere. Ezin gara ibili axaleko harreman laburrak egiten etengabe, horrek ez duelako ezer uzten. Ez du ezer ekoizten. Irakurle taldeetan ikasi dut. Aldez aurretik beste testu eta ideiak irakurri eta partekatu dituzulako, eraiki dezakezu zerbait berria”

Ez da teledemokrazia

“Nafarroan orain mugimendu sozialek daukagun arrisku handienetakoa akritikoki jarraitzea da, erakundeetan aldaketarik egon izan ez balitz bezala, dimisioak eskatzen, protestaka... Lana egin behar da. Pankarta oso ongi dago, baina gauzak aldatu nahi badituzu, hitz egin alda ditzakeenarekin eta proposa iezaiozu nola egin, inoiz baino belarri gehiago baitaude erakundeetan. Ez egon denbora guztian teledemokrazia balitz bezala Twitter eta Facebooken hau bai, hau ez”

ren sartu nintzen gaur egun Katakrahe den honen sortze prozesu luze eta konplikatuan.

Nola sortu zen Katakrahe orain dela bi urte?

Analisi bat egin zen, gerora bete egin dena. Proiektuak erakusten zuen Iruñean bazegoela nahikoa interes bereziki saiakera lantzen zuen liburu-denda zabaltzeko. Aldi berean, bazegoen beharra kultura kritikoa sustatzeko.

Hori dena testuinguru berri batean gertatu zen: Iruñeko eta Nafarroako erakundeak oso krisi larrian zeuden, 2011n ETArekin ziklo militarra bukatu zen eta pentsatzen genuen horrek aukera berriak ekarriko zituela, eta gainera, M15a gertatu zen. Oso aktiboki hartu nuen parte horretan Gasteizen eta gure kide askok Iruñean. Zentzu horretan, Katakrahe dabilen jendeak aldaketa gauzatzeko bere ekarpena egin duela uste dut. Memoria demokratikoa asko landu da, ustelkeriaren inguruko eztabaida dezente egin da, giro bat sortu da, eta bestela elkartuko ez zen jende asko elkartu da. Honekin guztiarekin eta hainbat libururen argitalpenarekin (aspalditik bereziki Pamiela eta Txalapartak kaleratutako liburuak eta berriki *El corralito foral*, *El banquete* eta Joxerra Senarren CAN auziari buruzkoa) agintean zeudenen deslegitimazioa eta ordezkartzaren inguruko gogoeta sortzea lortu dugu.

Eta zer uste duzu “nik politikaz paso” esaten duen jendeaz?

Logikoa da. Ulrike Meinhofek gogoe-ta interesgarria egiten du honen inguruan: azken hiru mendeetan langile jendea askotan traizionatu da. Mesfi-



dantza berez babes modua da eta lan-gile jendeari azken 80 amonetatik hona sartu zaio. Mesfidantza aldatzeko modu bakarra da gaitasuna duen jendeak erakustea gauzak beste modu batez egin daitezkeela.

Baina dirudun askok ere gauza bera dio.

Batzuek interes eza sustatu nahi dute haien interesak defendatzeko. Uste dute interes eza sustatuz gauzak ez direla aldatuko.

Aldaketa izan da hemen, botoen alde txikiz. Historiak eman duen aukera?

Aukera dugu, baina ikusi behar da Nafarroako Gobernuan boterean daudenean ea aprobetxatzen duten eta kaleko jendeak ea behartzen dituen aldatetarako egitera. Zuk orain bidegorri on bat egiten baduzu Iruñean edo hiru haurreskola zabaltzen badituzu, ez dago UPN-koen seme-alabarik ikusiko ez duenik. Hori da mundua aldatzea, eta ez orain jende askok pentsatzen duen bezala, Joseba Asironek memoriaren aldeko taldeek esaten dioten guztia betetzea. Bera Iruñeko alkatea da, iruindar guztiena, Uxue Barkos nafar guztion presidentea den bezala, eta jende askok ez du ulertu.

Horrek ez du esan nahi berdina jarraitu behar dutenik, adibidez, UGT eta CCOOen 120 soldata doan ordaintzen. Mugimendu sozialen lana da arazoak antzematea eta proposatzea zer ez den egin behar. Kontua ez da norberak bere txiringittoa zaintzea eta kitto. Hori da UPN-PSNren krisi sakonaren arrazoietako bat.

Honetaz gain, aldaketarako oso garrantzitsua izan da Nafarroak estatuarekiko duen izugarrizko desafekzioa. Oso harro esan behar da. Iruñeko Udalean PPK eta Ciudadanosek ez dute zinegotzirik. Parlamentuan 50 kidedatik soilik bi dira PPkoak. Eta ezin da esan PP eta UPN gauza bera denik, are gehiago Yolanda Barcinak PPra hurbildu nahi izan duenean, orduan hasi da bere krisi sakona. Nafarroako politikaren eta mugimendu sozialen ia berezko ezaugarria da negatibotasuna. Ez gaude Katalunia bezala egoera propositiboan, esanez zer garen, baizik eta zer ez garen edo zer ez dugun nahi ari gara beti esaten. Orain aukera dugu proiektu zehatz eta egituratua egiteko eta esateko zer nahi dugun Nafarroarako.



“Jendea desberdina izateko izugarrizko eskizofrenian murgildu da, azkenean denak berdinak izateko”.

Orain arte ikusitakoa nola baloratzen duzu?

Oso eszeptiko hasi nintzen eta badakit gauza hauek ezin dira publikoki esan behar, baina hasieran Joseba Asiron ez zitzaidan hautagai egokia iruditzen, eta orain aldiz, uste dut, zalantzarik gabe, oso ongi betetzen ari dela bere rola. Segur aski mugimendu sozialetatik gatozenok gure antza duen jendea nahi dugu beti gu ordezkatzeko eta hori oso arazo larria da. Batzuk ari dira esaten eskuineko gobernu dela, baina inork ez dio egin kontraproposamenik bere zerga politikari, adibidez. Antzera beste gai askorekin. Hau ez da iraultza. Halakorik espero zutenak zergatik ez ziren aurkeztu hauteskundeetara iraultzaile bezala?

Zergatik da horren berezia Wagner?

Wagnerrekin harremanetan 14 urterekin hasi nintzen. Bukatzen ez den meategia da. XIX. mendeko munduaren eraldaketa, musika klasikoa, artea eta iraultza interesatzen



Of the record:

Wagnerrek dioen bezala...

Elkarrizketa batzuk besteak baino trinkoagoak izaten dira. Bagenekien Hedoi goi mailako pentsamendu eta teoria politiko eta ekonomikoetan zer igerilari trebea, azkarra eta askotan kriptikoa den. Katakakeko lankideek txantxetan esaten dioten bezala, hauek dira Hedoiaren bi esaldi erabilienak: "Wagnerrek dioen bezala..." eta "Brecht liburu batean irakurri nuen bezala...". Espero bezala, solasaldian hamaika pentsalariren erreferentziak egin ditu Hedoik, gai batetik bestera ziztuan jauzika. Elkarrizketa oso interesgarria, baina zaila izan dela daitort.

bazaizkizu Wagner da zure gizona. Infinitua da. Gure mendebaldeko ikuspuntutik melodia ederrenetakoak idatzi dituen konpositorea. Ia gorra uzten

generorik unibertsalena dela, gizarte guztietan kantatu delako. Poesiak erakusten du nola ulertu duten mundua kulturek. ■

zaituzten pasarteak ditu eta kasik entzuten ez direnak ere bai.

Talaios kooperatibako kideek bezala, uste dut langile jendeak goi mailako kulturaren luxua izateko eskubidea daukala, eta ezin ez dula punk-rocka eta hip-hop entzuteran kondentatu. Musika klasikoa, adibidez, gure esku izan behar dugu interesgarria delako. Nobe bezala, janari goxoez eta artisau garagardoaz gozatu behar dugu. Ezin dugu gure burua basapizti bihurtzen utzi Coca-Cola eta garagardo industrialak soilik edanez.

Zergatik duzu poesia horren gustuko?

Gaur egun poesia ez da popularra, XX. mendean oso poesia txarra idatzi eta argitaratu delako. Baina literaturaren historiari erreparatzen badiogu ikusiko dugu



TALLERES MITXELENA S.COOP.




Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.
 Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
 T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2015



DONOSTIA Abenduak 19

Finala

Ilunbe, 17:00

Agin Laburu Rezola
Alaia Martin Etxebeste
Arkaitz Oiartzabal Agirre "Xamoa"
Beñat Gaztelumendi Arandia
Iñaki Apalategi Astigarraga
Jon Maia Soria
Oihana Iguaran Barandiaran
Unai Agirre Goia



Ezkerra joko kanpo Frantzian

Mamu bat dabil Europan barrena, eskuin muturraren mamua. Ez da Frantziako arazoa soilik, oro har Europako herrialde askotan zabaltzen ari den fenomeno da. Ezker-rra joko kanpo dago. Klase apalek eta globalizazio kapitalistarengatik jipoi-tuek geroz eta babes handiagoa ematen diote eskuin muturrari. Fronte Nazionalak (FN), Europako Parlamenturako hauteskundeetan bezala, Frantziako erregio hauteskundeak irabazi ditu lehenengo itzulian. *Gauche divine* guztia asaldatuta dago. Nola da posible hainbeste intolerantzia?

Globalizazioak desberdintasunen hazkundera ekarri du. Pobrezia pairatzen dutenentzat krisia ez da behin-behinekoa, bizimodu bat baizik. Aldiz, klase ertain-altuek eta ongizate estatuaren arrastoetako enplegu egonkor eta ondo ordainduak dituzten langileek ez dute krisiaren gordintasun osoa nabaritu. Ez dira gutxi asteburu bat Berlinen, zubi bat New Yorken eta oporrak Malaysian igarotzen dituztenak. Familia bakarreko etxebizitzetan eta auzo *cool*etako *loft*etan ez da ohikoa zure bizilagunek goizeko ordu bietan musika ozen jartzea. Hori bai multikulturalismo tolerantzia praktikatzear harro daude, urrutitik noski. Burgesturiko ezkerrentzat galdutako borroka omen da neoliberalismoari oldartzea, eta tira, berauei ez zaie hain gaizki joan, horregatik orain balore postmaterialista eta postmodernoetan sostengatzen dute ezkertiar ideologia. Ildo horretan, aniztasuna asko maite dute beraien eguneroko bizitzan espazio txikia okupatzen duen artean.

Esate baterako, unibertsitateko ikerlari edo enpresako teknikari etorkinekin duten harremana oso horizontala da, izan ere, etorkinen artean ere klaseak daude. Berriz, langile klaseko etorkin familiak auzo txiroetan eta



Asier Blas

EHUKO IRAKASLEA

@AsierBlas

Burgesturiko ezkerrentzat galdutako borroka omen da neoliberalismoari oldartzea, eta tira, berauei ez zaie hain gaizki joan, horregatik orain balore postmaterialista eta postmodernoetan sostengatzen dute ezkertiar ideologia. Ildo horretan, aniztasuna asko maite dute beraien eguneroko bizitzan espazio txikia okupatzen duen artean

bertako eskola publikoetan daude, urrun. Hori bai, burgesturiko ezker-irromoki kritikatuak du etorkinekin –diru laguntzengatik eta lanarengatik– lehiatzen diren beste langileen “kultura eta tolerantzia falta”. Urruti gelditzen zaie Marxek azaldutako ideia sinplea: langabetuak (eta orain etorkinak ere bai) dira burgesiaren ejertzitza eskularen prezioa merkatzeko. Urrun daude errealitate horretatik, eta beraz, Marine Le Peni botoa ematen dietenei arrazista deitzen diete mespretxuz.

Eskualdez eskualde, Frantziako mapari begiratuta FNren indarrak korrelazio positiboa azaltzen du desberdintasun sozialekin, geroz eta pobrezia eta langabezia gehiago, hauteskundeetan orduan eta pisu handiagoa du FNk. Eskuin muturra langile, langabetu eta gazteen artean gain ordezkatuta dagoen artean, klase ertain-altuaren artean nabarmen dago azpi ordezkatua. Horregatik, Fronte Nazionalaren demonizazio sinpleak fenomenoak elikatzen du. Alde batetik, pentsamendu bakarra irmotzeko balio du: denok batu behar dugu mamuaren kontra, eta beraz, ezkerrek apo batzuk (asko) irentsi beharko ditu mamuari aurre egiteko. Bestalde, gauzak aldatzeko alternatiba bakar gisa FN geratzen da, egungo egoera sozioekonomikoari aurre egiteko pentsamendu kritikoa monopolizatuz.

Bitartean, alderdi arruntek belizismoa besarkatu eta FNren segurtasun agenda egikaritu egiten dute. Ezkerrek berriz, giza eskubideen eta tolerantziaren diskurtsoarekin saihestu egiten du FNren igoeraren atzean dagoen klase arazoa seinatzea. FN biluzteko modurik eraginkorrena ezkerretik subiranotasuna berreskuratzeko proposamenak egitea da, aberastasunaren birbanaketaren beharra azpimarratuz eta antinperialismoaren eta bakezaletasunaren banderak berreskuratuz. ■

Ilargia eta atzamarra, biak balioan jarri!



Iñaki Antigüedad
AMAIURREKO
DIPUTATU OHIA

Ezker subiranistarena bezalako prozesu bati noizean behin osasuna ebaluatu behar zaio, prozesua aldatzailea ala aldakorra izaten ari den argitu eta horren arabera jarduteko. Eta gu-reak aldatzailea nahi du izan. Osasun azterketan zantzu kuantitatiboak, zenbakitan emanak, eta kualitatiboak hartu behar dira kontuan. Hauteskunderik hauteskunde prozesuak lortutako botoen segidak ematen du neurri kuantitatiboa, botoen atzean pertsonak izanik. Eta horri erreparatuta ez dirudi prozesuak duen potentzialtasun soziala lortzen ari denik, ez behintzat jauzi kualitatiboa emateko bestekoa. Hortaz, hauteskunde guztiak dira inportanteak, urrunekoak ere bai, prozesuak eskatzen duen pausa gabeko bidean ezin baita inoizko lehia kuantitatiboa ezker subiranisten espazioa hemengo burujabetza gabeko kudeaketan edo hango burujabetzapeko ezkerrean ari direnen esku utzi. Burujabetza Ber-ton dugu apustu soziala; eta Aldaketa, bide.

Zantzu kualitatiboak zailak dira neurtzen; “ustekabeen” azalera datozen arte. Edonola, noizbait jauzi kuantitatiboak emango baditugu, gizartean zabal sustraitutako nahi eta beharrengatik izango da. Katalunia dugu honetan ikasgai, derrepentean, ustez, azalerratu delako hango imaginario sozialean luze metatutako sumindura. Ez da gure egoera, suminduak izateko hamaika arrazoi me-

tatuta ere; gauzak ondo egiten ez ditugun seinale. Gogoeta egin beharko genuke horretaz, batez ere iragana ez baizik eta geroa helburu, eta oraina helbide, dugunok.

Hortxe koska, gure apustu sozio-politikoaren ardatz diren Burujabetza eta Aldaketarako bi-deak, apropos pluralean idatzita, zabaldu, sakondu, uztartu eta gizentzen asmatzea, kontraesanak kontraesan. Kualitatiboa ere, biharko jauzien bultzagile. Hauteskundeetatik harago, erakundee-tatik honago, burujabetzaren beharra pedagogiaz zabalduz, sinesgarritasunaz lortuz. Akabo, beste-la. Eta horrek pentsamoldearen iraultza eskatzen du, beste iraultzetan pentsatu baino lehen.

Bidea ibiltzen egin. Esanak eta eginak biderkatu behar, prozesuak behar duen egitura poliedrikoa sendotzeko. Poliedrikoa, mami, eta aurpegi, asko eta askotarikoak behar dituena. Asko dago horretan ikasteko, nor bere hartzen duen esparru motzekoa prozesuaren osoa ez baldintzatzeko bestekoa. Dena da inportantea, baina are inportanteago prozesuak bidea egitea, eraginkor. Prozesuak egutegiko egun guztien beharra du; gehiago baleude horiena ere. Hauteskunde kanpainakoak barne. Baliatu ditzagun ilargia eta atzamar-punta, biak ala biak, balioan jartzeko; beste batzuk tematuko dira atzamar-puntan, alde biko izateko baten bat etorriko delakoan. Gu geurean, zintzo. ■

Turroia eta lastoa



Oihana Etxebarrieta
KAZETARIA
@BetaurrekoMorea

Loteria saltzailearen hitzak, urtero zenbaki bera erosten duenaren argazkia; pasa orria, erosketak eta deskontuak; itxi egunkaria. Telebistan krisi garai hauetan gabon afari eta dekorazio eder baterako gomendioak; aldatu ka-tea, turroiaren iragarkia; itzali telebista. Irratian Eguberriak kanpoan pasatuko dituenaren hitzak, bata Alemanian, bestea Txinan eta azkena Kana-dan; itzali irratia.

Ez dira oraindik egun seinalatu horiek baina zenbait komunikabidek izango dituzten hizke-ta gaiak aurreikusi ditzaket. “Ez daukagu zertaz hitz egin”, eta beraz, betiko kontuak errepikatuko dituzte. Guri interesatzen zaizkigulako kontatzen

dizkigute edo hainbeste aldiz aipatuta azkenik in-teresatzen zaizkigulako?

Merkatuaren eta sistemaren logika jarraituz, urteko egun eta ordu guztietan zer kontaktuko zai-gun erabakita daukagu alde zurretik eta horrek gudan guztiongan duen eragina ikaragarria da (irakur agenda-settingaz).

Horren aurrean gure kabuz egin beharko dugu aurrera edo hilko gara. Hil ideiez, grinez, ametsez, etorkizunez eta iraganez. Gure baliabideak ezagutu eta erabili behar ditugu, baina ez sakralizatu. Ikus dezagun gure begian dugun lastoa, atera dezagun eta Argiago jarraituko dugu bidea. ■

Ez dakit

Nik ez dakit Durangoko Azokak mozkinik eman dien bertan aurkeztu diren enpresa kulturaleri. Liburu eta disko asko saldu dituzten. Adinaren diskrezioan azokara hurre-ratu diren idazleak gai izan diren zutik irauteko, ordu luzeen osteak gerriko hezurdura lekutik aterata, eta gero, etxera itzuli diren aieneka, eta eskumuturra dislokaturata bakoitzaren liburu eskainian zirriborro ikasiak egin eta gero.

Ez dakit gure Toti koitaduaren errukirik izan duten horren lanen zaleek eta jaleek, ilara amaigabeetan itxaroten egon eta gero, aurrez aurre autore izarraren irribarre fotografikoaz gain, liburu gogokoena besapean hartutakoan, etxera bueltatu direnean.

Ez dakit euririk egin behar ote duen azoka gunea jendez gainezka jartze-ko, euritik babes bila bertaratu behar izanda, edo on-lineko erosketez baliatu diren, Espainia aldeko edozein hondartza epeletan sabela gora egon bitartean, eta Durangon gogoia.

Ez dakit Gernika-Lumoko urriko azken astelehenean bezala, Durangokora batu diren saltzaileek, ekoiztuaren edertasuna erakustez gain, malabarismo linguistikorik erabili ote duten, hainbeste neke eragindako produktua saldu ahal izateko.



Karlos Gorrindo

IDAZLEA
@kgorrindo

Dakidan bakarra da Durangoko Azokak gurdi bete diru eman duela ikuspuntu gastronomikotik. Eta hau ere kultura da. Kulturala izateaz gain

Ez dakit erosgaiak berak berez saltzeko gaitasunik ote duen, edo artista kontzeptualak legez, artelanaren gaineko azalpenak eman behar izan dituen, salgaia ulertu, erakargarri bilakatu eta erosteko interesgarri egiteraino (Ferre-ro Roche batek lagun lezake erosgaiaz

gozatu eta irakurraldia ezitzeko, autorearen mezu iradokitzaileak balekoak izan ezean).

Ez dakit Durangoko Azokara hurre-ratu direnak, erosgaia eskuan hartu, usaindu, aurretik eta atzetik aztertu, eta Paulov-en txakurren antzera hasi diren aho-zuloaren kanpoaldeko ezpain ertzetik behera adurretan, ase eta bete geratuko direlakoan.

Dakidan bakarra da Durangoko Azokak gurdi bete diru eman duela ikuspuntu gastronomikotik. Eta hau ere kultura da. Kulturala izateaz gain. Euskal Herria berez ongi jaten den tokia dela aitortuta dago, Mitxelin izarrak ez baitira korroskada ozenena botatzea-gatik ematen edo uzkiarekin litro bete ur xurgatzearen abilitate xurgatzaile izateagatik, bazka ona, egokia, ugaria, anizduna, kalitatezkoa eta oso garestia ematen dutelako baizik.

Eta dakidan bakarra da osagai kultural gastronomiko honetaz azoka aldiari atseginik hartu nahi izan baduzu, izenik edo izarrik edo hauei itzalik egin nahiko liokeen edozein jatetxetan, jai izan duzula. Liburu eta disko kulturaren orde, gastronomikoa gailendu zaiolako. Ahoak gozamen gehiago hartzen du begiak baino. Gora kultura. Gora Durango. Biba fandango. ■

EUSKAL OROIGARRIAK

Harizko brodatu pertsonalizatuetan adituak

Kale Nagusia, 16
San Jeronimo, 14
Portu, 14

20003 Donostia · Euskal Herria
☎ 650 210 339 / 618 094 279 · arkupe2@gmail.com

Perretxiko zaindaria



Atsegin duzu perretxiko bila joatea?

Horrela bada, jolas honen bidez perretxiko biltzaile arduratsua eta bikaina bihurtuko zara

- Perretxikoak ezagutu
- Ingurunea zaindu
- Perretxiko-biltzaile ona izan.

Basora joan eta aukeratu zure ibilbidea eta helburua.

Hiru helburu, hiru jolas, taula berean.

Perretxikoak bildu ahal izateko galdera bati erantzun beharko diozu. Hiru erantzun posible izango dituzu!

27 euro

Harpidedunentzako:
24,00 euro



Eskaerak:

☎ 943 37 15 45

denda@argia.eus · www.argia.eus/denda

Industrialdea, 15 - 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)

 ARGIA

ESKOLA JANTOKIAK

ALTZAGA, SUKALDEAK KENTZEKO ERASOARI EUTSI DION BAKARRETAKOA

Bi dira EAEko ikastetxe publikoen artean bertako sukaldeari eusten dioten bakarrak, biak guraso elkarteek kudeatuak: Larrabetzukoa 2010 urtean ezagutu zenuen ARGIA (2.225 zenbakian), zeinak bertako ekoizleei erosten dizkien lehengaiak. Txikiaren bentajak. Oraingoan bestea ezagutuko dugu, Erandioko Alzaga ikastetxea, eta jantoki handi honetan (540 ikasle inguruk bazkaltzen dute egunero), ikus dezakegu nola egiten duten talka elikadura eta kudeaketa burujabetzak Eusko Jaurlaritzak fermuki bultzatzen duen catering industrialaren ereduarekin. Euskal Herrian badira eredu gehiago, eskolako jantokia tokian tokian kudeatzen dutenak, tokiko ekoizleen produktuekin, askok bertako sukaldean eta ez garestiago.



Estitxu Eizagirre Kerejeta

@eeizagirre

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Sorreran gurasoen kooperatiba zen Erandioko Alzaga ikastolak 48 urte egin dituela eta gainean duten mende erdia ospatzeko antolaketa martxan jarri dutela kontatu digute pozik Zuriñe Miguelek eta Kontxi Akesolok, guraso elkarteko kide eta jantokiaren ardura-dunek. Gazteleraz errazago ariko balira ere, elkarrizketa euskaraz egitea erabaki dute. Harro daude 48 urteotan bertako sukaldeari eutsi diotelako: "Gauza asko aldatu dira, pisu batean hasi zen ikastola, gurasoak kooperatibako bazkide izanik, eta handitzen joan da, publikatu egin zen... baina sukaldea beti izan dugu, hori ez da aldatu. Baloratzen dugulako da".

Duela 5 urte, matrikulazio eskaerari erantzuteko hirugarren lerroa irekitzea -ikas maila bakoitzean hiru gela egotea- beharrezko ikusi zuten. Denak eraikin nagusian kabitu ezin, eta eraikin berri

hasi ziren txikiak. Garraztasunez kontatu dutenez, "Jaurlaritzak ez zigun baimenik eman han sukaldea jartzeko. Gu kanpoan catering industrialek prestatutako jantoki eredu horren guztiz kontra gaude baina ez dugu beste erremediorik izan: Jaurlaritzaren erantzuna izan zen eraikin berriaren ez bagenuen sistemaz aldetzea onartzen, gurean lerro bat ireki beharrez beste ikastetxe bat sortuko zutela herrian. Bi egun barru erantzuteko epea jarri ziguten. Egundak izan genuen tartean gurasoak bildu eta adosteko". Geroztik, bi sistema dituzte eskolan: handiena gurasoek kudeatzen dute, txikiena Eusko Jaurlaritzak.

Bietan cateringa, baina kudeaketa ezberdina

Bitxia eta ulertu beharrezkoa da administrazioak jantokien kudeaketa izendatzeko duen modua. "Kudeaketa zuzena"



90 MILIOI EURO

Ikasturtero **90 milioi** euro inguru mugitzen ditu EAEko ikastetxe publikoetako jantokien zerbitzu osoak (menua, prestatzea, zantzaileak...). Horren **%73** familiek jartzen dute eta gainontzekoa Hezkuntza Sailak.

EGUNEROKO BAZKALTARRAK

EAEko 500 ikastetxe publikotan 93.500 ikasle bazkaldu zuten egunero jantokian 2014-2015 ikasturtean.

Euskal Herriko 108 ikastoletan gutxi gora behera ikasleen erdiak bazkaltzen du jantokietan: 27.000 ikasle inguruk.



Altzaga ikastetxeko jantokian 5-16 urte arteko 540 ikaslek bazkaltzen dute egunero. Argazkian, DBHko ikasleak bertako sukaldean prestatutako platerak aurrean dituztela.



MENUEN PREZIOA

4,6 euro:

EAEko ikastetxe publikoetako ikasleen kuota arrunta, eguneko. Horri Jaurlaritzak egiten dion ekarpena gehitu behar zaio (ez dugu zenbatekoaren datu zehatzik).

5 eta 7 euro artean:

Hegoaldeko ikastoletan eguneko menuaren kuota, ikastolaren arabera. (Erakunde publikoen diru ekarpenik ez dago).

3,25 euro:


Senperekoko herriko kantinako gehieneko kuota, egunean. Gurasoen diru sarreraren arabera, gutxiago ere izan daiteke.



ESKOLA-MENUEN BANAKETA EAEN (2011-2012)

Enpresa menuak egunero % totaletik

| | | |
|-------------|--------|---------------|
| • AUZOLAGUN | 32.751 | %35,3 |
| • MAGUI | 13.078 | %14,1 |
| • G. BASKA | 12.309 | %13,3 |
| • EUREST | 9.990 | %10,8 |
| • GASCA | 8.847 | %9,5 |
| • TAMAR | 8.570 | %9,2 |
| • GOÑI | 7.218 | %7,8 |
| GUZTIRA | 92.763 | %100,0 |



Auzolagun, Magui eta Goñi talde berekoak (Ausolan) direla kontuan hartu ezker, multzo honek EAEko eskola-menu gutzien %66,4 eman zituen 2011-2012 ikasturtean.

Iturriak: Ekolapikok osatutako datuak dira, Eusko Jaurlaritzako (http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/es/contenidos/informacion/dij3/es_2099/j3_c.html) "Jantokien zerrenda loteka" eta "Mahai-kideen zerrenda" dokumentuen informazioak batuta.

esaten dio juxtu ikastetxetik urrunene-koa denari, alegia, zuzenean adminis- trazioak kudeatzeari. Eta “zeharkako kudeaketa” deitzen dio jantokia ikaste- txean bertan gurasoek kudeatzeari.

Altzagan bi kudeaketa moduak dituz- te: administrazioak kudeatutako jan- tokiak 5 urtez beherako 110 ikasle ingururi ematen dio jaten egunero. Eta gurasoek kudeatutakoak 5-16 urte ar- teko 540 ikasleri. Bien arteko aldeaz galdetuta, Miguelek eta Akesolok hauxe erantzun dute: “Jaurlaritzak kudeatu- tako cateringin kalitatea ez da txarra izango, baina gurasoek ez dakigu. Guk aukeratu egiten dugu zer janari erosi eta nondik. Bertan prestatzen da janaria eta gehiago kontrolatzen dugu: umeei jaki bat gustatzen ez bazaie, aldatu egiten da. Gurasoek gara jantokiko arduradu- nak eta tarteka etortzen gara ikusteko nola doan zerbitzua hasten denetik bu- katzen denera, bertan bazkaltzen dugu janaria dastatzeko, langileekin hitz egi- ten dugu...”.

» Kudeaketa gurasoen esku egotea garesti ordaintzen du Altzagak: batetik, bertako ikasleak jantokiko diru-laguntzarik gabe uzten ditu Jaurlaritzak eta bestetik, zerbitzu osoa gurasoek ordaintzen dute

Eta adi, bertako sukaldea duen jantoki handi honen kudeaketa catering enpre- sa baten bidez egiten du guraso elkar- teak (Larrabetzuko eskolak ez bezala): “Haren bidez kontratatzen ditugu 35 langileak (bai sukaldariak eta bai begi- raleak). Erabakia gurea da, beti izango dugu aukera cateringik ez izatea era- bakitzeko. Pentsatu izan dugu, baina oraingoz ez dugu pausorik eman”.

Kudeaketa gurasoen esku egotea ga- resti ordaintzen dute, ordea: batetik, bertako ikasleak jantokiko diru-lagun- tzarik gabe uzten ditu Jaurlaritzak;



Jantokiko sukaldari eta begiraleen kontratazioa catering bidez egiten du Altzagako guraso elkarteak. Baina berak erabakitzen du menua, zer eta non erosi...

IKASTOLEN ERDIEK BERTAKO SUKALDEA DUTE

Ikastola bakoitzeko jantokia ikastolak berak kudeatzen du. Hego Euskal Herrian 74 ikastola daude Ikastolen Elkartean, eta horietatik 36tan bazkaria bertako sukaldean prestatzen dute. Bertako langile eta begiraleak ikastolako langile dira. Elikagaiak, aldiz, kanpoko enpresen bidez erosten dituzte. Kudeaketa eurengan egonik, bertako eta garaiko produktuak erabiltzea ikastola bakoitzaren esku dago.

Zerbitzuaren kostua osoki ikastolak hartzen du bere gain (Eusko Jaurlaritzak ez du inongo ekarpenik egiten) eta bertako ikasleek aukera dute Jaurlaritzak ematen dituen jantokiko beka eskuratzeko.

Hauek dira bazkaria bertako sukaldean prestatzen duten ikastolak:

1. Abusu (Bilbo)
2. Seber Altube (Gernika)
3. Txantxiku (Oñati)
4. Zurriola (Donostia)
5. Assa (Lapuebla de Labarka)
6. Udarregi (Usurbil)
7. RM Azkue (Lekeitio)
8. Orereta (Errenteria)
9. Pasaia-Lezo Lizeoa (Pasaia-Lezo)
10. Betiko (Leioa)
11. Jaso (Iruñea)
12. San Fermin (Zizur Txikia)
13. Paz de Ziganda (Atarrabia)
14. Aresketa (Amurrio)
15. Ander Deuna (Sopela)
16. Laskorain (Tolosa)
17. Kurutziaga (Durango)
18. Jakintza (Ordizia)
19. Andramendi (Beasain)
20. Uzturpe (Ibarra)
21. Urretxu-Zumarraga
22. Salbatore Mitxelena (Zarautz)
23. Tantirumairu (Lesaka)
24. Santo Tomas (Donostia)
25. San Benito (Lazkao)
26. Armentia (Gasteiz)
27. Audio
28. Arangoiti (Irunberri)
29. Argia (Tutera)
30. Kirikiño (Bilbo)
31. Urretxindorra (Bilbo)
32. Larramendi (Mungia)
33. Asti Leku (Portugalete)
34. Andramari (Zornotza)
35. Aranzadi (Bergara)
36. Eleizalde (Bermeo).

beste herri batetik datozen ikasleek, garraiorako diru-laguntzez gain, jantokirako ere izan beharko lukete, bazkaria ikastetxean egin beste erremediorik ez dutelako. "Hemengo ikasle asko daude egoera horretan, baina ez dute inongo laguntzarik jasotzen". Bestetik, "zerbitzua osoa gurasook ordaintzen dugu, Jaurlaritzak ez du batere dirurik jartzen".

GIPUZKOAKO **ESKOLA TXIKIAK** SISTEMA PUBLIKOAREN OASI

Jantokirako propio lekurik ez dagoen ikastetxe publikoetan, Eusko Jaurlaritzak baimentzen du zerbitzua herriko ostatueta ematea. Hau gaur egun praktikan, eskola txikietan ematen da. Hezkuntza Sailak egiten dituen eraikin berri guztiek izaten dute sukalderik gabeko jantokia. Baina eraikin zaharra edo udalak eskolarako utzitako egoitza duten ikasleek abantaila hori badute, egunero bertan prestatutako ostatuan jatea. Gu-

rasoek aukera behintzat badute sukaldariarekin zuzenean oinarriez hitz egiteko (menuak, zer eta nondik erosi...). Jantoki hauetako gurasoen kuotak eta Jaurlaritzaren diru-laguntzak gainerako ikastetxeetako catering industrialen berberak izaten dira. Gipuzkoako Eskola Txiki hauetako ikasleek bazkaltzen dute egunero herriko ostatuan: Abaltzisketa, Gabiria, Larraul, Alkiza, Zerain, Olaberria eta Aduna.

NAFARROAN EREDU ANITZAK ETA KUDEAKETA GURASOEN ESKU

Nafarroan eskolako jantokiak bertako guraso elkarteek kudeatzen dituzte. Gehienek catering enpresen bidez kontratatzen dute zerbitzua, baina badira zuzenean eramaten dutenak ere. Eskola batzuek bere sukaldea dute eta bertan prestatzen dute bazkaria, eta beste batzuek kanpotik ekartzen dute.

Landa eremuko eskoletan, berriz, etxetik prestatutako janaria eramaten dute: herri txikietako 70 eskolatik goiti daude, eta jantoki sistema ekonomi-

koki eutsi ezin dutenez, ikasleak bazkaria ontzian joaten dira. Guraso elkarteak begiralea jartzen du, ikasleak zaintzeko. Eskola hauen aldarrikapena da babes legal bat sortzea, Espainiako Estatuko hainbat lekutan legeak baimentzen baitu ontzietan etxetik janaria eramatea.

Nafarroako Gobernuak laguntzak ematen dizkie eskolara bere herritik kanpo doazen ikasleei, eta kuota guraso elkarte bakoitzak finkatzen du.

XILABA-N HERRIKO ETXEEK EMATEN DUTE KANTINA ZERBITZUA, CATERING BIDEZ

Zuberoa, Lapurdi eta Baxenabarren herriko etheen eskumena da kantina zerbitzua ematea. Herriko 3-11 urte bitarteko haurrak elkartzen dira hauetan, ikastetxeak bat baino gehiago izanik ere. Frantziako Estatuaren arauak ere oso estuak dira, su-

kaldea bertan izatea galeratzen dutenak. Herriko etxe bakoitzak bere irizpideen arabera erabakitzen du zein catering enpresa kontratatu. Ikasle bakoitzaren kuota, gurasoen diru sarreren arabera izaten dira.

AKKPA edo nola behartu herritarrak elikadura industrialera

AKKPA (Arriskuen eta Kontrol Kritiko Puntuaren Analisia) elikagaien industriari erabiltzen den prozesu estandarra da. Prozesuaren etapa bakoitzeko arriskuak aurreikusi eta autokontrol planak txertatzen ditu. EAEn, 300 bazkaltzarretik gorako jantokiek bete behar

dute. Gurasoek kontaktatu dutenez, horrek dakar lan prozesu zurruna jarraitu behar izatea eta dena idatzi beharra: "Idatzi behar ditugu erabilitako errezeta guztiak, leku eta tresna guztien garbiketa, lan ekintza guztiak eta beti pausu berak jarraitu behar dira, eta horrela egiten dela kontrolatu... egunero idatzi behar dugu, esaterako, okela etorri

EAEKO ESKOLA PUBLIKOEN BILAKAERA: SUKALDETIK CATERING INDUSTRIALETARA

Uxue Arbe ARGIAko harpidedunak lagundu digu erreportajerako dokumentatzen. Unibertsitaterako aurten egin duen lanean (Eskola jantokiak: Elikadura arloko alternatibak zurkaizteko aukera) bildu du EAEko jantokien bilakaera:

- 80ko hamarkadan hasi eta 90eko hamarkadan ezinbesteko bihurtu zen zerbitzua. Emakumeak ordaindutako lan merkatura sartzearen eta gizonak ordaindu gabeko lan erreproduktiboetara ez sartzearen ondorioz, eguerditan etxean egoteko zailtasunek eragindakoa da jantokien beharra.
- 80ko hamarkadan kudeaketa modu anitzak zeuden, nagusiki bitan multzokatu daitezkeenak: guraso elkarten ardurapekoak eta Hezkuntza Sailaren ardurapekoak. Lehenengo kasuan, guraso boluntarioek ardura handia zuten kontratazioak (sukaldeko pertsonal funtzionarioik ez bazegoen), erosketak edota menuak erabakitzeak. Hartutako erabaki horien finantziazioa neurri batean publikoa zen, hau da, aurrekontu publiko bat elkarte pribatu batek kudeatzen zuen, tarteko esleipen publikorik gabe. Gainera, gatazkak sortzen zirenean, nahasi gertatzen zen argitzea nori zegokion erantzukizuna, eta gainkosturik bazen, bere egitea. Bigarren kasuan, Hezkuntza Sailak pertsonal funtzionarioaren bidez edo catering enpresen kontratazioaren bidez eskaintzen zuen zerbitzua.
- 2000. urtean Jaurlaritzak araudia berritu eta legez, gurasoen kudeaketa eten zuen. Zerbitzua hornitzeko, homologatutako enpresak soilik aurkeztu zitezkeen, eta bi zerbitzu mota eskaini behar zituzten: cateringa (janaria sukalde zentraletan prestatzea), eta cateringa in situ (enpresek hornitutako lehengaiak erabilia, eskoletako sukaldeetan prestatzea). Hezkuntza Sailak aurretik hartutako beste erabaki bat izan zen sukaldeak ez berritzea eta eskola berrietan sukaldetik ez egitea.
- Legeak lege, 2007-2008 ikasturtean 8 eskolek eusten zioten gurasoen kudeaketari. Presioa handitzeko beste neurri bat iragarri zuen Hezkuntza Sailak 2008ko maiatzean: kudeaketa Jaurlaritzarengan utzi ezean, ume bakoitzeko jasotzen zen diru-laguntza publiko oro kenduko zieten. Egun, bost ikastetxetako jantokien kudeaketa dago guraso elkarten esku: Larrabetzu, Alzaga, Deustu, Aranzabela eta Mendebaldea. Azken hiruek ez dute sukaldetik ikastetxean.
- 2009an, Nekazaritza Sailak ikerketa bat eskatu zuen elikagai ekologikoetan oinarritutako proiektu pilotu baten bideragarritasuna aztertzeko. Ikerlanaren emaitzak ikusita, eskolatan bertako elikagai ekologikoen horniketa ez zela aproposa ondorioztatu zuen.
- 2014ko ekainean, legez besteko proposamena aurrera atera zen Eusko Legebiltzarrean. Honen arabera, lau eskoletako guraso elkarten esku gelditu da proiektu pilotuak garatzeko ardura. Prozesuak martxan dira eta lehen eskolak 2016ko urte hasieran jarriko du praktikan gurasoen kudeaketa.

da: zer temperatura duen, zer ordutan gorde dugun, non... Tarteka ikuskariak etortzen dira auditoriak egitera". Seguratasuna bermatzeko balio dute, baina Alzaga-koaren moduko bertako sukaldean bertako lehengaiak prestatzea galarazten dute, bestetik: "adibidez, okela darraren kamioiak hozkailua izan behar du AKKPA -ren arabera eta herriko harategiak ez dauka. Inguruko sorotako barazkiak ere ezin ditugu erosi, saltzeko baimenik ez daukatelako".

Eta hala ere, Alzaga-ko sistema askoz merkeagoa da

Alzaga-ko helduen jantokiko kuota, sukaldea bertan duenarena, hilean 74 eurokoa da, eta horrekin osorik ordaintzen dute cateringaren bidez azpikontratatuta duten zerbitzu osoa. Eusko Jaurlaritzak ez du euro bakar bat jartzten. Alzaga-ko txikien jantokiko kuota, catering industrialak ikastetxetik kanpo prestatzen duena, hilean 91 eurokoa da, eta diru horrekin zerbitzuaren %73 ordaintzen da, gainerako %27 Jaurlaritzak hartzen du beregain. "Guk ere catering bidez egiten dugu lan, langileak zuzenean kontratatuta baino garestiago iritetzen zaigu, baina askoz merkeagoa da gurea. Eta gehitu gurasoen gehiegizko kuota horri Jaurlaritzaren dirua! Lotsagarria da. Badirudi garai batean jantokiko eremua enpresei emateko gura izan zutela. Jantokietako zerbitzua cateringei eman nahi badiete ere, txikiagoak izan daitezke, eta ikastetxetik ahalik gertuen daudenak. Horrela janaria hobe aterako da. Baina alderantziz egiten dute, lau urtero cateringak esleitzeko pleguak edo baldintzak berresten dituztenean, eskatzen dutena beti da enpresak handiagoak izatea. Ez dugu ulertzen". ■

Kubik
1-4 urte bitarteko umeentzako antzezlan
3€ [euskaraz]

Zalla zine-antzokia

abenduak **23** 17:30

abenduak **26** 18:00

EL LIBRO DE LA SELVA
familientzako musikala
6€ zenbakitua

Txartelak salgai Kutxabaneko zerbitzuan eta Zalla zine-antzokiko leihatilan

zalla.org
facebook.com/Zallainfo
[@zallainfo](https://twitter.com/zallainfo)
youtube.com/zallainfo
zallainfo.zalla.org
issuu.com/zallainfo
info@zalla.org

Euskaragida .eus

2015
2016



aldizkariak



DVD-ak



jokoak



CD-ROM / APP-ak



musika



gurasontzako materiala



komikiak



liburuak



hiztegiak



auto-kaskuntza



Gabonetan jai!



urtarrilak 2, larunbata · 11:00

"1805"

ASIER KIDAM MAGIC



urtarrilak 3, igandea · 11:00

"BARRE LABORATEGIA"

ZURRUMURRU ANTZERKI TALDEA



urtarrilak 4, astelehena · 11:00

"BIOLIN MAGIKOA"

ATEJOKA ANTZERKI TALDEA

oihanedereuskararenetxea.eus
FRAY ZACARIAS MARTINEZ 2, 01001 VITORIA-GASTEIZ

Laguntzaileak:



Kolaboratzaileak:



Antolatzaileak:



NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAN IKASLEAK EUSKARA IRAKASLE

Duela hiru urtetik hona Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP) euskarazko eskolak ematen ditu Euskara Taldeak. Bertako ikasleek eskolak doan ematen dituzte, unibertsitatea euskaldundu bidean. Unibertsitateko ikasle, irakasle, langile eta unibertsitate kanpoko edozeinek oinarritzko euskara ikasteko aukera du.



Iruñe Astitz Larunbe

@arkkuso

Ikasturte hasieran 15 pertsonako bi talde osatu zituzten, eta mintzapraktikarako taldea ere bai. Ikasleez gain, aurten unibertsitateko bi langilek eta bertan ikasten duen guraso koadrila batek eman dute izena. Astean bitan ematen dituzte eskolak, ordubeteko saio banatan.

Ikuspuntu akademikotik aldendu eta giro atsegina sortzen saiatzen dira irakasle bihurtutako ikasleak. Euskara ikasleek goza dezaten eta elkarren arteko harremanak sendoak izan daitezten saiatzen dira. Ohikoena, ikasleek euskararekin eta euskal kulturarekin harreman oso urria izatea da. Euskara Taldeko kideen ustez, irakasteko modu dibertigarria erabiltzeak eta eskolak musu-truk izateak jarrera ona eragiten du ikasleengan.

Euskara Taldea NUPeko Ikasle Abertzalearen baitan sortu bazen ere, handik urtebetera Ikasle Abertzaleaketik atera eta campus mailako talde independente moduan kokatu zen. Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskarak duen agerpen gabeziak jabetuz, euskaraz bizi eta ikasi nahi duten ikasleek osatzen dute ordutik Euskara Taldea.

NUPen euskaraz ikasteko aukera murriztak daude, soilik Magisteritzari dagozkion graduak ikas daitezke euskaraz. Gainontzeko ikasketetan ikasgai gehienak dira erdaraz. Ikasgelatik kanpo euskaraz egitea ere zaila da. Administrazioari langileen artean eta kafetegian adibidez, euskaraz dakien norbait topatzea nekeza dela salatu izan dute urte luzez NUPen euskararen gaia jorratu duten ikasle taldeek.

Euskararen Eguna eta Korrika

Euskararen Eguna hasieratik ospatu dute, alde batetik euskarak unibertsitatean duen presentzia urria salatzeke, eta beste aldetik euskarari beharrezko tokia emateke.

Joan den ikasturtean, Korrika Iruñetik igaro zela probestuz LABeko kideekin eta UNEDeko euskara taldearekin batu eta horren inguruko hausnarketa egin zuten. Horretaz gain, Ikasle Abertzaleak eta Eraldaturekin batera Herri Unibertsitatea antolatu zuten NUPen.

Euskararen aldeko plataforma

2014-2015 ikasturteko errektoretza hauteskundearen harira, euskararen alde lan egin nahi duten ikasle, irakasle eta unibertsitateko langileak batu ziren eta euskararen aldeko plataforma sortu zuten. Errektoretza talde berriari euskararen inguruko gutxienekoen eskaera egin zioten, hiru ildotan banatuta.

Lehenik, irakaskuntzarekin lotutako gaiak leudeke; euskaraz eskaintzen diren kredituen kopurua eta irakasleen

» 2014-2015eko datuen arabera, ikasleen %27,45ak daki euskaraz

» Irakasleen %14,57ak C1 maila dauka euskaraz

euskarazko maila handitzea. Bigarrenik, unibertsitateko zerbitzuak kontratatzeke orduan euskara maila kontuan hartzea, baita kontratatuta zeudenei euskarazko formakuntza eskaintzea. Hirugarrenik, euskarazko eta euskara oinarri duten kultur jarduerak ugartzea eskatu zuten.

Errektoretzarako hauteskundearen baitan eratutako taldea bada ere, gaur egun elkartzan jarraitzen du, eta tartean da Euskara Taldea.

Irakasleen %75,43k ez du euskarazko ezagutzarik

Nafarroako Unibertsitate Publikoa 1987an sortu zen. 2013-2014 ikasturteko datuen arabera, 7.780 ikasle inguru ditu eta 859 pertsona daude irakasle eta ikertzaile lanetan. 18 gradu titulazio, bi gradu bikoitz eta 20 unibertsitate master eskaintzen ditu. Eskaintza horretatik Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Irakasleen Graduak baino ez dira osotasunean euskaraz. Gainerako graduetan eta Bigarren Hezkuntzako Irakasleak Prestatzeko masterrean euskarazko irakaskai gutxi batzuk hautatu ditzakete ikasleek.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Irakaskuntza antolatzeko errektoreordetzak hizkuntza plangintzarako zuzendaritzaren 2007-2015eko memorian jasotzen duenaren arabera, euskaraz dakiten ikasleen kopuruak nabarmen egin du gora. 2004-2005 ikasturtean %18,79k zekien euskaraz eta 2014-2015 ikasturtean %27,45ak. Irakasle eta ikertzaileei dagokienez, eta 2014-2015 ikasturtea kontuan hartuta, eus-



Unibertsitateko ikasleak astean bi aldiz euskara irakasle bihurtzen dira. Eskolak doakoak dira.

JOSU SANTESTEBAN

karazko C1 edo EGA du %14,57ak eta %10ak euskarazko ezagutzak ditu. Beraz, irakasleen hiru-laurdenak ez du euskarazko ezagutzarik.

Pablo Sotes, Nekane Oroz eta Carlos Vilches irakasleek 2013an NUPeko ikasleen jarrerak eta usteak elebitasunaren eta hezkuntza elebidunaren aurrean izeneko ikerketa aurkeztu zuten.

2005-2006 ikasturtean 2.048 ikasleri elkarrizketak egin zizkieten eta eztabaida taldeak ere bai. Besteak beste, haien hizkuntza gaitasuna ezagutu nahi zuten.

Inkestaren arabera, ikasleen %14k zuen euskara ama hizkuntza edo euskara eta beste hizkuntza bat ama hizkuntza; gaztelania soilik ama hizkuntza zutenak ikasleen %84 ziren. Dena

den, inkestan parte hartutako ikasleen %40k euskaraz aritzeko gaitasuna zeukan. %20k euskarazko oinarrizko edo goi-mailako tituluren bat zuten.

Ikasleen %60 baino gehiagoren arabera euskara ez zegoen normalizatuta. %76,5ak euskarazko irakasgaiak ugartzea komeni dela adierazi zuen, eskaintza urria delakoan. ■

tradebi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradebi.com

Naturak inspiraturiko jolas-parkea

Oinarri pedagogikoek gidatua, natura imitatuz eraikia, eta ikuskizun eta tailer bereziz betea. Bestelako haur-parkea da *Bi urtaroen balada*, Ekogunean (Donostian) zabaldu berri duten gunea.



Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

ARGAZKIAK: EKO GUNEA

“Gure gomendia da kanpora irtetea eta naturara gerturatzea, baina guraso askok ez du gogorik ez ohiturarik, eta gure herriko klima ere sarri ez da egokiena; horregatik, barrurako alternatiba bat eskaini nahi izan dugu, natura erreferente hartuta”, kontatu digu Naiara Elorriaga Ekoguneko Hezkuntza arduradunak. Barrurako alternatiba honek 700 metro koadro ditu, 400 jolas-guneari eskainiak eta 300 aldagela, kafetegi, sukalde, harrera eta abarretara bideratuak. 0-12 urteko haurrengan pentsatutako gunea da eta capla xaflez muntatutako hiru soro eder ditu: soro txikia, ertaina eta handia, adin tarte eta konpetentzia ezberdinetara egokituak eta zuhaitz, sare eta boleaz hornituak. Soroen artean, anfiteatro funtzioa egiten duen tarte dago, elkarrekin egoteko foroa. Hiru “negutegi” ere prestatu dituzte: sabaitik eskegitako eta patata fekulaz egindako oihalek osatzen dute negutegi bakoitza, argi-zuloak osatuz, tolesdurekin eta argiarekin jolastuz. Espazio intimoagoak dira negutegiak, bakarrik edo talde txikitik lasai egoteko beharra daukaten haurrentzat. Paretetako bat arbela da bere osotasunean –“mugagabe zabal-tzen den landa-eremua, sormena lantzeko”, dio Elorriagak–, eta arbelaren bueltan dago baserria, modu ugaritan eraiki daitekeen egitura, norberak asma dezan bere baserria. Eskailerak ditu, eta

txirrista, poleak, ispiluak, imanarekin jolasteko piezak... Esperimentatzeko eta jolas sinbolikoa lantzeko espazioa da, batez ere. Azkenik, kolore ugaritako kutxak eskura dituzte umeei, guneak eskaintzen dizkien jolas egituretatik aparte beraiek beraien egiturak sor ditzaten. Material naturalez egindako jostailuak daude kutxetan: txotxongiloak, mozorroak, kakorraz edo oihalezko panpinak, eraikuntzarako jokoak, kartoi-zko eta egurrezko zaldiak... Jostailuak aldatzen eta berritzen joango dira.

» **NAIARA ELORRIAGA, EKO GUNEKO HEZKUNTZA ARDURADUNA:**

“Toxikorik gabeko espazioa sortzea izan da gure premisetako bat, ahalik eta goxoena, material ekologikoak eta organikoak erabiliz. Naturak ematen digun lasaitasuna imitatzen saiatu gara”



Lurra ere berezia dela azpimarratu du Naiara Elorriagak, haur-parkeetan erabili ohi dituzten kautxuzko laukien ordez, hainbat material uztartuz lur propioa sortu baitute, segurtasun neurriak betetzen dituen eta naturalagoa. “Toxikorik gabeko espazioa sortzea izan da gure premisetako bat, ahalik eta goxoena, material ekologikoak eta organikoak erabiliz. Material naturalez inguratzeak, zaratarik gabeko espazioa antolatzeak ematen duen lasaitasuna, naturak ematen digun lasaitasun hori, imitatzen saiatu gara”. Jostailu elektronikorik ez dugu aurkituko gune honetan.

Naturaren zikloen isla eta erronka anitzak

Bi urtaroen balada izena du lekuak –gurean bi urtaro ditugulako bereziki markatuak–, naturan espazioa berez aldatzen ikusten dugun moduan, ziklo naturalekin dugun konexio hori ekarri nahi baitute jolas-parkera, haurren parte-hartzearen eta tailerren bidez. Esaterako, zuhaitzak loratuz edo hostoz betez, txoriak eta animalia jakinak ezarriz, elur malutak eginez... Pedagogia berdeak zi-priztintzen du gunea, eta pedagogia berdeak dio naturarekin interakzio zuzena duten haurrak erlaxatuago bizi direla, adimen abstraktua, afektibitate, gaitasun sozialak, autoestimua, sormena, empatia... garatzeko lagungarri zaiela.



Naiara Elorriagaren hitzetan, haurrari autonomia ahalik eta handiena eman nahi diote, jolasa hasieratik zuzendu gabe, berak erabaki dezan eta norbera izan dadin bere jolasaren gidari, egitura ahalik eta malguenak eta irekienak eskainiz. Areago, jolasa bakarrik ez, espazioa eta ingurua haurrek beraiek erabakitzen, aldatzen eta sortzen joatea da asmoa.

“Pedagogia berdearen oinarrietako bat jolas librea da eta espazio hau jolas librerako pentsatua dago, funtsezkoa da guretzat”, gaineratu du Elorriagak. Jolasa oso gauza serioa dela dio, haurrek ikasteko daukaten modua delako, eta ikasketa prozesu hori, jolas hori, norberak dituen interesetatik eta momentuan dituen beharretatik ematen bada, benetako ikasketa emango dela. “Gaur egungo ikasgeletan, haurrak sarri ez du aurkitzen momentu horretan bere neurri dagoen erronkarik, erronka errazagoak edo zailagoak jartzen dizkiete maiz, eta naturan aldiz erronkak oso anitzak dira, hamar zuhaitz aurkituko ditu eta haur batek zuhaitz txikia aukeratu du, bestea goragoko adarretara igoko da... Bada, aukera aniztasun hori ematen saiatu gara espazio honetan ere, ezagutza eta interes maila ezberdinak kontuan hartuz. Haurrari autonomia ahalik eta handiena eman nahi diogu, jolasa hasieratik zuzendu gabe, berak erabaki dezan eta norbera izan dadin bere jolasaren gidari, egitura ahalik eta malguenak eta irekienak eskainiz”. Areago, jolasa bakarrik ez, espazioa eta ingurua haurrek beraiek erabakitzen, aldatzen eta sortzen joatea da asmoa.

Pedagogikoki nahiko zabalak izaten saiatu direla dio Hezkuntza arduradunak; “gustatzen zaiguna hartu dugu, baina itxi gabe, obsesionatu gabe”. Nagusiki Waldorf, Pikler eta Montessori izan dituzte kontuan. Gerturatzen denak Montessoriren material asko aurkituko ditu, eta puzzleak, eta psikomotritate fina, ertaina eta osoa lantzeko jolasak...

Baratzea, otordu biologikoak, animalia-maskarak...

Egunero tailer bat egingo dute jolas-parkean. Jasangarritasunari lotutako tailerrak izango dira, zentzurik zabalenean: material birziklatuekin musika-tresnak egin eta jotzea, animalia-maskarak sortzea, entzumenarekin jolatu eta txorien kantak lantzea... Tailer gehienak, gainera, barruan eta kanpoan egingo dira, Ekoguneak dituen 24 hektareak eta bertako baratze, larre, baso, erreka eta zelaiak baliatuz. Elikadurari garrantzi handia ematen diote eta tailerretako batzuk baratzean egingo dituzte, “oso ekintza praktikoa delako, landareak, zikloak, janaria, kontsumoa... lantzeko”. Kafetegian ere elikadura tailerrak antolatuko dituzte –janari ekologikoa eta bertakoa eskain-

tzen du kafetegiak-, eta otordu biologikoak egingo dituzte. Urtebetetze edo antzerako festak ospatzeko aukera ere izango da, “baina litxarkeriak eta patatak eskaini ordez, adibidez pizza ekologikoak osatuko ditugu, eta garaian garaiko bertako produktuak dastatuko ditugu”.

Ikuskizunak ere emango dituzte, igandero. Urte osorako guztira 24 ikuskizun ezberdin prestatu dituzte, “eta hauek ere bereziak, dibertigarriak, oso parte-hartzaileak eta naturari lotuak izango dira”. Ostiral arratsaldetan, larunbat, igande eta jai egunetan, Eguberrian eta Aste Santuan zabalik da jolas-parkea, eta astelehenetik ostiralera ikastetxeetako bisitak hartuko dituzte.

Mikel Insausti Ekoguneko zuzendariaren hitzetan, “jasangarritasunari buruzko gaiak batzuetan lehor xamarak izan daitezke eta argi genuen parke honek parke ludikoa izan behar zuela, mota eta arlo guztietako jendea erakarri behar genuela, ez bakarrik ekologistak edo sentsibilizatuta dagoen jendea. Ondo pasatzearekin batera, denongan mezu ekologikoa uztea da asmoa, ingurumenarekiko kontzientziazioetik ekintzetara pasatzeko”. ■

GRINA GUTXI KANPAINAN ETA OKERRENAREN ZAIN

Abenduaren 20aren zain, hotz da hauteskunde giroa Hego Euskal Herrian. Inkesten arabera, bozkatzera joango diren %40 batek oraindik erabaki gabe du bere botoa Espainiako Estatuan. Horrek esan nahi du inkestek ematen dituzten datuak ere gutxirako balio dutela, joera gisa ez bada bederen.



Xabier Letona

@xletona

Espainiako Diputatuen Kongresuak 350 eserleku ditu eta kontua da norik duen 176 biltzera iristeko gaitasuna. Bipartidismoaren amaiera emango ei da, baina ikusi beharko da zein neurritan. Inkesta denen esanetan, oraingoz honakoa litzateke irabazleen ordena: PP, PSOE, Ciudadanos eta Podemos. PPK irabaziko luke, baina gehiengo osotik arras urruti eta, beraz, Ciudadanosen beharra luke. Ez lukete arazo handiegirik akordioetara iristeko, baina egoerak hala eskatuko balu, ezta Ciudadanosenk eta PSOEek euren artean ere.

Edozein eszenatokitik, badirudi Ciudadanosenk garrantzi handia izango duela Espainian. Alderdiko ordezkarien esaneekin aski dakigu haien izaeraz, euskarari buruz egin berri duten azken erradiografiak haien barrena garden erakusten digu. Arabako Batzar Nagusiek euskarara hurbildutako arabar helduei egin zieten aitortza aho batez -PPk barneonartutako adierazpenarekin. Ciudadanosenk 1980-90eko hamarkadara egin zuen atzera diskurtso publikoan: "Arabako gizartearen 'euskalduntze' eredua inposaketa eta doktrinatzeko politikoan oinarritua dago, errealitatek harago, euskarak Araban duen egiazko dimentsioa eta transzendentzia sozialetik harago". Moncloan PP eta Ciudadanos egongo badira ez da gaitza irudikatzea Madrilek berezko duen joera zentralista.

Akabo jeltzaleen ametsak Gernikako Estatuaren erreformaz eta aldebi-

tasunean oinarritutako itunaz. Eta akabo bakearen gaia zentzuz bideratzeko EH Bilduren ametsak. Espainiako kaleak bor-bor egon dira hainbatetan azken bost urteetan, krisia eta ustelkeria tartean, PPre irudia lur azpian eta PSOEek eta Podemosek gobernatzearen esperantza hegan. Egoera horretan kulunkatu da hainbatetan Espainiako Bigarren Trantsizioaren ideia. Baina modu harri-garrian dena kea bailitza desagertu da.

Beti gelditzen da zirrikitu bat, ordea, alderdi espainiarrek itunetan beste alderdi batzuen beharra izatea, adibidez. Eman dira halako egoerak lehenago eta batez ere CiUk eta EAJk baliatu izan dituzte, bai PSOEekin eta bai PPrekin. Badoan legealdian 33 eserleku Katalunia, Galizia eta Euskal Herriko eserleku abertzaleekin osatu dira. Orekak asko estutzen badira, erabakigarriak izan litezke.

Nafarroan lehia bikoitza

Bost diputatu hautatuko dira Nafarroan eta bi UPN-PPrentzat izango dira, beste bi PSN eta Ahal Dugurentzat eta, inkesten arabera, azkena, oraingoz EH Bildurentzat. Oso posible da, hala ere, bosgarren hori koalizio soberanista eta Geroa Bairen artean lehiatzea. 2011n 7.000 boto gehiago atera zituen Amaiurrek, baina harrez gero behera egin du pixka bat, eta Geroa Baik Nafarroako Lehendakaritza du. Koldo Martinezek zer du aurka? Bera ez dela Uxue Barkos. Eta alde? Legebiltzarreko Geroa Bairen bo-

zeramaile izateak ezagunago bihurtu duela.

Foru hauteskundeetan abertzaleen atzetik ibili ziren PSN eta Ahal Dugu oraingoan aurretik ibiliko dira seguruenik. Gauza bitxiak gerta litezke, esaterako, PPK eta Ciudadanosenk ituna egiten badute UPNk Mariano Rajoyren alde egin beharko lukeela, bere bazkideak Hitzarmen Ekonomikoa ezabatuko lukeela adierazi duenean.

Nafarroaren berezitasunetakoak da foru gobernuaren sostengatzen duten lau indarrak elkarrekin aurkeztuko direla Senatura. Lautik hiru senatari eraman-go dituzte seguruenik, baina baditu bere arriskuak ere, adibidez maiatzean baino boto gutxiago eskuratzea. Oraingoan ere, Ciudadanosenk boto mokadu handia kenduko bide dio UPN-PPri.

PSE-EE eta PP, berriro behera

EAEn 18 diputatu hautatuko dira eta badirudi azken hauteskundeetako joera gailenduko dela: EAJ berdintsu aterako da edo akaso diputatu bat gehiagorekin (5etik 6ra); EH Bilduk behera egin dezake (6tik 5era); Ahal Duguk aurreikuspen oso ona du, inkesta gehien arabera, 4 eserleku; eta PSE-EEK eta PPK beherantz jarraituko ei dute, nahiz eta hauteskunde hauek guztietatik proposenak diren haiendako.

Ahal Duguri dagokionez, ikusi beharko da nola eragiten dion Roberto Uriarteren dimisio guztiz ezohikoak, batez ere hau-



PPren eta Ciudadanosen arteko ituna izan daiteke hauteskudeen ondorengo argazki posibleenetako bat.



teskudeen atarian eman zelako. PPK eta PSE-EEK ere jarraitzen dute beren emaitza txarrekin, baina gaitza da sines-tea inkestek iragartzen dizkieten emaitza horren txarrak erdiestea (bina diputatu bakoitzak). Hala ere, Ahal Duguren emaitza onak ere hor daude eta batez ere PSOeri eragingo diotela dirudi. Ciudadanosek, aldiz, PPri -edo UPN-PPri- asko eragingo dio, nahiz eta ez zaion aurreikusten eserlekurik Hego Euskal Herrian.

Bestelako egoera zatekeen EAEn euskal gizarteko hainbat pertsona ezagunek uda aurretik deitu zuten ezkerreko hautagaitza batua aurrera atera izan balitz. EH Bildu, Ahal Dugu eta bestelako ezker txikiagoen batasunerako deia zen azken finean, maiatzeko udaletako bultzada baliatu eta, batez ere, ETaren ondorengo eszenatokian proiektu benetan berritzaile batekin sartzeko. Hori izango da euskal politikako etorkizun hurbil eta ertaineko erronketako bat, baina oraindik berde dago.

Nafarroan aldaketaren indarrak elkarrekin aurkezteko aukerarik ez zen argi plazaratu, Geroa Baik berehala agertu baitzuen bakarrik joateko borondatea. Hala ere, EAEn bezala, egon ziren ezkerreko indarrak biltzeko bi proposamen, baina Ahal Duguk uko egin zien eskain-

» **Nafarroa: Lautik hiru senatari eramango dituzte seguruenik aldaketaren indarrek, baina jokaldiak baditu bere arriskuak ere, adibidez maiatzean baino boto gutxiago eskuratzea**

tzei eta, ondorioz, Izquierda-Ezkerrak ere bai. Azken hauek Herritarren Bata-suna aurkeztu dute, baina haien siglak besterik ez daude hautagaitzaren atzean.

Estatuari begira, Katalunia izango da datorren legealdiko gune beroena. Urte bukaerarako oso posible da Junts Pel Sí-CUP korapiloa desblokeatzea, eta horrekin katalan eta espainiar legaltasun arteko lehen talka handia emango da. Kataluniari begira, gero eta gehiago dira pentsatzen dutenak Euskal Herrian ere beharko litzatekeela harekiko elkartasuna agertuko lukeen mobilizazio esanguratsu bat. Izango da aukerarik. ■

LUAarkitektoak

hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
perifazioak
balorazioak
etxebizitza proiektuak
birgailzeak
barne diseinua...

Río Arga Kalea 28, 31014 Iruña Tel 948 13 26 97
lua@luark.com

ikuszirkus
ZIRKU JAIALDIA

Circo Los (Brasil) Abenduak 26
Circo El Grito (Italia) Abenduak 27
Elegants (Katalunya) Abenduak 28
Sun magoa (E.H.) Abenduak 29

Abenduak 26-29
20:00

ANDORANGO UDALA **bastero** KULTURGUNA

basterkulturgunea.blogspot.com.es | © 943 303 540

AZOKA GAZTEA, MENDEAK PASA ARREN

Ohiko azoka baino zerbait gehiago izateko lanketan dabil Tolosakoa. Erosleen kontsumo ohituretan eragin, gertutasuna eta kalitatea eskaini eta harreman-sareak sortzeko plaza aproposa izanik, larunbateroko merkatua biziberritze prozesu sakonean murgilduta dago.



Igor Agirre
@igoragirre

Larunbateroko zita da azoka Tolosako eta inguruko jendearentzat. Urte askoko ibilbidea du merkatuak; herria sortu zenean, duela ia zortzi mende, existitzen omen zen. Gaur egun bi gunetan banatzen da: Zerkausian eta Berdura plazan.

Zerkausia izena du Oria ibaiaren ertzean dagoen eraikinak. Tolosako argazki ezagunaren protagonista azoka egiteko erabiltzen da, besteak beste. Bertan izaten dira salgai ekoizleen eta saltzaileen garaian garaiko produktuak. Berdura plazako estalpe kristaldunean, aldiz, landareak eta loreak egoten dira.

Kontsumo ohiturak asko aldatu dira urte batzuetatik hona, ordea. Horri begira, egokitzapen eta biziberritze prozesu bete-betean da Tolosako azoka.

Salerosketa hutsa baino gehiago

Azokak produktuen trukerako gunea baino gehiago dira; harremanak sortu, kultura eta hizkuntza transmititu eta ingurumenarekiko errespetua azaltzen dira bertan. Horren adibide da Lurretik Sukaldera ekimena. Astero, sukaldari batek azokako postuetan salgai dauden garaiko produktuak aukeratzeko dituzte eta Zerkausian plater berezia prestatzen du zuzenean. Ondoren, prestatutakoa pintxoetan dastatzeko aukera izaten da.

Azoka dinamizatu eta giro desberdina sortzeko, Sormenetik proiektua ere abiatu dute. Kultura, euskara eta nekazaritza biltzen ditu egitasmo horrek, eta kulturaren inguruko hausnarketak egin ohi dira bertan. Azken saioan, esaterako, azokako bi ekoizlerekin aritu zen solasean Jakoba Errekondo ARGIAko kolaboratzailea.

Azokan egitasmo berriak sortzeaz gain, inguruko merkatuekin elkarlana sustatzeari ekin diote berriki, eta konkretuki Ordiziakoarekin. Eskualdeetako azoka garrantzitsuenak izanik, baserri-tar eta saltzaile gehientsuenak bietan izaten dira. Horrela, udalen eta eskualde bakoitzeko landa garapen elkarleen saretzeari esker, azoken dinamizazioa eta garapena proiektu komunean bildu da. Hausnarketa prozesua ere batera hasi dute bi azokek eta adibidez, Londreseko baserri-tarren azokak bisitatzen egon berri dira.

Ekintza horiek guztiak erakusteko asmoz eta azokaren ohiko funtzionamendua ezagutarazteko, bisita gidatuak ere egiten dira Tolosan. Produktuak ikusteko eta ekoizleekin gertuko tratua izateko aukera dago bisitei esker. Tolosako turismo bulegoak antolatzen ditu eta kanpoko jendeaz gain, bertakoek ere aprobetxatzen dituzte bisitak.

Estereotipoak hausten

Kontsumo ohiturek duela urte batzuetakoan desberdinak diren moduan, baserri-tar, ekoizle eta saltzaileak aldatu egin dira denboraren poderioz. Begoña Aristiren kasua da. Baserrian jaioa da eta 21 urterekin hasi zen azokan, duela hamabost. Tolosan du saltokia, eta herriko kontsumo taldeak barazkiz hornitzen ditu. Bere iritziz, "salmenta zuzena da aukera onena baserri-tarrentzat eta erosleentzat".

Aurpegi berriak agertzearekin batera, azokako saltzaileen figuraren inguruko estereotipoak galtzen ari dira. Gaur



egun, betiko saltzaileen figura gainditu eta estilo guztietako ekoizleak aurkitzen dira Tolosan. Horietako bat da Joseba Baez gazte donostiarra. Ingeniari-tza ikasketak egin eta fabrikari zebilela, lana utzi eta gaztandegia jarri zuen mar-txan. "Idiazabalen badut familia eta haurra nintzenez ikasi nuen gazta egiten". Gerora erabaki zuen gaztandegia jarri eta azoketan saltzen hasia.

» ARRATE ITURBE, AZOKAKO DINAMIZATZAILEA:

"Jendeari helarazten diogun mezua ez da azokan kontsumitu behar dutela. Zein altxor dugun hemen konturatu behar dute, eta kontzientziatuta gerturatu"



TOLOSAKO AZOKAK UTZIA

Erosle gazteak giltzarri

Saltzaileen inguruan molde finko bat ezarrita dagoen bezalaxe, azokako erosleen figura adinean nagusiak diren pertsoekin lotzen da maiz. Hori gainditzeko lanketan ari da Tolosako azoka. Era berean, erosle gazteek azokan erosteko ohitura har dezaten egin beharrak definitzen ari da.

Ezaguna da larunbatero Tolosan azokari esker sortzen den giroa eta mugimendua. Horren adibide da EHUko iker-

lari talde bat egiten ari den azterketa, azokak herrian sortzen duen inpaktu ekonomikoa neurtzeko. Azokara gerturatzan ez direnei zergatik ez diren azaltzen eta zerk erakarri ahal dituen galdeztzen ari dira ikerketarako.

Tolosako azokako dinamizatzailea da Arrate Iturbe. Bere esanetan, “belaunaldi gazteak ez dira horrenbeste etortzen azokara. Hala ere, jendeari helarazten diogun mezua ez da azokan kontsumitu

behar dutela. Zein altxor dugun hemen konturatu behar dute, eta kontzientziatuta gerturatu”.

Paulo bat gehiago eman eta Garaikoa elkarteak sortu berri dute Tolosako azokako ekoizle, baserritar eta saltzaileek. Horren bidez azokako proiektuak gizarteratu nahi dituzte, eta azoka nola landu aztertuko dute. Mendeak bete arren, gazte dagoen azoka belaunaldi berrien elkargune bihurtzea da helmuga. ■



***Tolosako azoka,
bertakoa eta gaurkoa***

www.tolosakoazoka.com · ☎ 943 697 521

HERRITARREK GAZTEEI MAILEGUA INTERESIK GABE



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria



Ipar Euskal Herriko barnealdean gazteen ihesa saihestu eta hauek lurraldeko jardun ekonomikorako agente izan daitezen, herritarren elkartasunezko aurrezki sistema jarri du martxan Euskaldun Gazteriak.



GAZTEENDAKO AURREZKIRAKO LEKUKO TALDEA

- **Programa:** Gazteendako Aurrezkirako Lekuko Taldea (GALT).
- **Antolatzailea:** Euskaldun Gazteria.
- **Eragite eremua:** Nafarroa Beherea
- **Helburua:** Baxenabarreko 35 urtez beherako gazteek enpresa bat sortu edo berriz hartzeko laguntza jasotzea, herrian lan eta bizi ahal izateko.

Ipar Euskal Herri barnealdea. Baxenabarre. 1966tik lanean den Euskaldun Gazteria taldeak 2009an eragin esparru berri baten beharra ikusita jada Zuberoan martxan den Gazteendako Aurrezkirako Lekuko Taldea (GALT) sortzeko hautua egiten du. Urte aldrebes samarrak bizi ditugu, ez gazteok bakarrik, baina jendarteko zati honi heldu dio Euskaldun Gazteriak –azaldu beharrik ez dago zergatia, izenari erreparatuta soilik nahikoa izango da-. Zonaldean gazteen ihesa egunetik egunera goranzko joeran ikusita, enpresa txikiak ixten ari direla, etorkizun ez oso urrunak kolore ilunak erakusten ditu herri batentzat. Behar garbia eta lan egiteko gogo faltarik ez.

Hemen lan eta bizi

Inguruko gazteak lurraldeko aktibitate ekonomikoko agente izan daitezen sortutako elkarte da GALT. Gazte batek lehendik datorren enpresa baten testigua jaso edo enpresa berri bat sortzen duen momentutik bere herrian toki bat izango du. Bertan lan egin eta bizi ahal izateko aukera.


Bultzada hori emateko GALT elkartasunezko aurrezki sistema jarri dute

martxan Nafarroa Beherean. 2011-2013 epean lau proiektu lagundu dituzte eta 2015ean jarraipena eman diote bigarren GALT batekin.

Pertsonak dira, herritarrak, gazteari mailegua ematen diotenak. Diru bat aurreratzen diote enpresari heltzeko lehen sarrera izan dezan, eta aktibitatearekin hilabete batzuk daramatzala interesik gabe itzultzen joango da jasotako dirua.

Urteko 180 euro jartzen ditu laguntzaile bakoitzak, baina nahi izanez gero hilabetekako ordainketa egin dezake –15 euro hilean-. Talde tekniko batek aztertu eta hautatzen ditu proiektuak; talde hori Euskaldun Gazteriak, Euskal Herriko enpresen zentro bultzatzaileak, banku ordezkari batek, kontulari batek eta lurraldearen garapenaren alde ari diren zenbait herritarrek osatua da.

Luzera begirako enpresak sortzea da helburua, pertsonak zentroan jarriko dituztenak, lurraldeko dinamika ekonomikoan parte hartuko dutenak, ingurumena errespetatzen dutenak, eta hau guztia lurraldean elkartasun mekanismoak martxan jarrita. ■



OIARDO KIROLDEGIA (USURBIL) ABENDUAK 19, LARUNBATA

saio bakarra: 17:00etan

Sarrerak: aurretik 7 euro, egun berean 8 euro (12 hilabete arteko haurrak doan)

Harremanetarako:

☎ 943 37 15 45
sustapena@argia.com

Antolatzailea

ARGIAren Adiskideak
Usurbilgo Taldea

 ARGIA

Mordontxiloz bete-beterik



Jakoba Errekondo

Paulo Anduagak honela dio: “Bizkaian, Arratia bailarako Zeanuri herrian jaio zen Larrakoetxea 1894ko ekainaren 23an, Undurraga auzoko Altxagutxi baserrian, eta Oñatin Laterandar Kanonigoen komentuan hil zen 1990eko uztailaren 10ean, 96 urte zituela”, Bedita Yon Larrakoetxea Agirrezabala fraideari buruz idatzitako liburuxkan.

Bere paisaietako hizkuntzaren aldeztaila porrokatua zen Bedita, eta ahalegin horren ondorioz euskaltzain ohorezko izan zen. Adituko zituen makina bat kanpai-jotze saio, hots soinu eta doinu: letxuga-kanpaiak, garbantzu-kanpaiak, emakumeen hil-kanpaiak eta abar.

William Shakespeareren antzerki languztiak ekarri omen zituen euskarara; tartean *Ekatxa* (The Tempest). Bertan, honela azaltzen du nor den Keretz: “*Erromarren yainkono da, Saturna ta Opits'en alabea. Gizaikiari lur-lantzea irakatsi ei eutsen*”. Ondoren grekoentzat Demeter dela argitzen du. Egun, Euskaltzaindiaren arabera, Zeres da. Lurra lantzen erakutsi omen zuen jainkosa horren ohorez laboreei esaten zaie zereal.



Bedita Larrakoetxea, eserita, Oñatiko Udalaren omenaldia jasotzen 1988an.

KONTZEJUPETIK

Ekatxa obran bertan, jainkoen bidari eta ostadar gisara azaltzen duen Iritzek honela dio: “*Keretz, andera esku-zabal esku-zabal ori, zure garitza, zikiriotza, garagartza, zalketza, olotza ta idartza yori-aberatsak*”.

Horrek begia jo eta arreta harrapatu dit: idartza, olotza, zalketza... Zein paisaia ederak. Jainkotu berak egin zuen hizkuntza. Begira altxor horretan Keretzen ahoan

jartzen duen beste perla hau: “*Lurra dakarrena ta ugaritasun oro, Aletegi ta kutxarik ez iñoz utsik; Maastiak mordontxiloz bete-beterik; Landarak ugaritasunez adar-makur; Beranduenez udabarria betorkizue Uztearen azken-azkenetan! Urritasun eta ezak zuokandik alde begi Keretz'en onespena zuontzako auxe bedi*”.

Gurditzarra mordontxiloz mukuru lan utzi zigun... ■

IRAKURLEAK GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Guk aurten arabarba landatu dugu. Gomendiorik? (@greeni_us erabiltzaileak twitterrez bidalitako galdera).

Arabarba ondoen hazten da toki eguzkitsuan, lur motelean eta pH 5,0-6,0 artekoa duten lur azidoetan. Ur-asetutako lurra, ordea, ez ditu maite.

5-12 urte biziko da erraz, beraz, lurra sakon prestatu behar da: zulo handia egin, oso handia, luze-zabal metro koadro batekoa eta metro erdiko sakonerakoa, gutxienez.

Lurra ondo harrotu, belar sustrai arrasto guztiak garbitu eta hogeit bat kilo simaur nahasi. Simaurrik ezean ondo ondutako lurra erabili.

Udazkenean landatzen da, baita neguaren amaieran ere. Landaretik landarera metro beteko eta errenkadatik errenkadara metro eta erdiko tartea utzi. Begiak edo ernamuinak lur-azalean dituela aldatu sustrai lodikotea edo errizoma. Ondo zanpatu aldameneko lurra.



Arabarba (*Rheum rhabarbarum*).

DIETER WEBER-CC BY SA

BIZI BARATZEA

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea · [t @bizibaratzea](https://twitter.com/bizibaratzea)

EGUBERRITARAKO OPARIA

LIBURUA ETA ILARGIAREN EGUTEGIA

Salneurria: 23 €
Harpideentzat: 19,50 €

ARGIAn lurra lantzeko lanabesak eskuratu ditzakezu: *Bizi Baratzea* liburua eta 2016ko Ilargiaren Egutegia. Usurbilgo Alkartasuna Kooperatibarekin elkarlanean atera dugu egutegia Pello Zabalak aukeraturako esarekin. Hilero lan nagusiak, ilargiaren kokapena eta egutegi biodinamikoaren arabera eguneroko joerak azaltzen ditu.



AURKEZPEN HITZALDIAK

Hauk dira ondorengo hitzorduak:

Abenduak 16

Altzo
Udal Aretoan, 19:30ean.

Abenduak 22

Belauntza
Lekua zehazteke, 18:30ean.

Abenduak 29

Abaltzisketa
Goibean, 18:30ean.

KOMIKILARIAK ERREKONDOREN KONTSULTAN

LUAR vs. KONPOST

**Hau bai ezuste eijerra: galegoz, ilargiai esate zayok LUA, ta LUAR omen bere distira!

Galdera bat diat hiretzat, Santiyo bideko ziriña, KONPOSTA hitza ez al duk hobea Galizian izanda Konpostela!

** Doinua: "Baratze bat".



Alberjiniak astun ospea du. Berarekin lan egiten duen baratzezainak, bada-ki, mainatia da, konformagaitza, elkar ulertzeko zaila eta berehala arantzak erakusten ditu, txorrotx. Sasibidea da alberginiaren hazkuntza. Heavya!

Jateko bai samurra eta goxoa arabeek ekarri zigutena... Alberjinia musikariak luarraren kanta osa dezan hitza:

KONPOST, KAKETAN PLOST GORA LUARRA

Konpostari izana handik ez datorkio,
Konpostelatik nirea bai izena Santio,
gure aitak berea zenari zor dio.

Galegoek, guk bezala,
ipurdian zuloa,
aurretik sartzen, atzetik ateratzen, bizia sortzekoa.
Hemendik aurrera, gaurtik atzera bizi-bizitzekoa.

Konpost?

Nahi duenak esan beza; niri bost!
Txikitan ikasi genuen: kaketan plost!

Sastaixe, atalohia, kortalohia, lur-gorotza, luarra...
ez da, ez, luharra;
nahi duenak ase beza jakinminaren harra.

Sats, simaur, gorotz, lur-ustel, kaka, zirin;
azpi, etzauntza, ohatze, azpigarri, inaurkin...
zer ikasia badugu, nahiz eta ustez erruz jakin.

Jakoba Errekondo

DUELA 5.000 URTEKO HAURTZAINDEGIA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Irak, 1930eko hamarkada. Irango mugan ia, Diyalah ibaitik hurbil, Eshnunna sumertar hiriaren arrastoak induskatzen hasi ziren, Chicagoko Unibertsitateko Ekialdeko Institutuaren gidaritzapean. Sumertar arrastoak nahasita aurkitu ohi dituzte, eraikinak zaharkituta zeudenean birrindu eta txintorren gainean berria eraikitzeko ohitura zutelako. Horregatik zaila izan ohi da eraikinen mugak zehaztea, eta Chicagoko Unibertsitateko arkeologoen aztarnategia alderik alde zeharkatzen zuen bost metro inguruko lubaki zabala induskatu zuten. Interesgarria iruditzen zitzaizen zerbait aurkituz gero, bilaketa eremua zabaltzen zuten.

Horrela, hiriko agintari nagusiaren jauregia aurkitu zuten, eta, alboan, hiri babesten zuen Ninazu jainkoari eskainitako tenplua. Tenpluaren geletako batean objektu bitxiak aurkitu zituzten: terrakotaz egindako arkumeak, gazelak, elefanteak, txakurrak, lehoiak eta beste zenbait animalia. Ez zekiten eskultura txiki horiek zertarako erabiltzen zituzten eta, arkeologoen halakoetan maiz egiten duten moduan, kultu objektu gisa katalogatu zituzten.

Duela urte batzuk, ikerlariak objektuok berriro aztertu zituzten, eta pieza batzuek gurpilak –ordu anasmu berriak– edota uztaiak zituztenez, jostailuak zirela ondorioztatu zuten. Paul Kriwaczek historiala-



CHICAGOKO UNIBERTSITATEA

riak, *Babylon: Mesopotamia and the Birth of Civilization* (2012) liburuan, horrela deskribatu zuen gurpildun jostailuetako bat: "Hamahiru zentimetro inguru da luze, terrakotaz egina dago, eta ahari buru txiki bat dauka gorputz zilindrikoari itsatsita. Lau gurpil meheren gainean dago eta aurreko aldean soka lotzeko zuloa du. Jostailu soila da, 3-5 urteko haurrek gozatzeko egina. Eta imajinatzen duzu ume bat, due-la 5.000 urte, aharia herrestan eramaten hautsez betetako patio batean edo hiriko kale jendetsuetan". Edo haurtzaindegi moduko batean, jostailu guztiak eraikin baten barruan aurkitu baitzituzten.

Sumertarrak haurren zaintzaz kezkatzen ziren, besteak beste haurren



Ezkerrean, Eshnunnako indusketa lanetan egindako aurkikuntza (1930-1936). Lerro hauen gainean, bertan aurkitutako jostailuetako bat, ziurrenik Paul Kriwaczek historialariak deskribatutako bera.

heriotza-tasa oso altua zelako. Inguru zingiratsu haietan gaixotasunak eta infekzioak oso erraz zabaltzen ziren, eta, ondorioz, pubertarora iristen ez ziren haurren portzentajea oso altua zen. Horregatik, bitartekoak zituztenek ahal zutena egiten zuten seme-alaben heziketa eta osasuna zaintzeko. Hala, Mesopotamiako beste hiri bateko garai bertsuko familia aberats baten langile eta esklabo zerrendan inudeak, haurtzainak eta sendalariak aipatzen dira.

Horrek guztiak ondorio honetara eramandu ditu ikerlariak: Eshnunnako haurrentzat –aberatsentzat behintzat– ezagutzen dugun lehen haurtzaindegia antolatu zuten Ninazuren tenpluko gela hartan. ■



LINCOLN MUMS

Piramideari titulua kendu zion eraikina

Ezagun da Gizako piramide munduko egitura artifizialik altuena izan zela luzaroan; zehazki, 3.871 urtez. Baina 1311. urtean zerrendako lehen postuan ordezkatu zuen eraikina, Lincolneko katedrala (Lincolnshire, Ingalaterra) ez da hainbestetan aipatzen. Piramideak 146 metroko garaiera du, eta katedralak 160 metro zituen eraiki zutenean.

Inork ez zion katedralari ohore hori kendu, berak bakarrik galdu zuen, eraiki eta 238 urtera, erdiko orratza amildu zenean –eta berreraiki ez zutenean–.

Baina eraikinik garaienaren titulua ez zen Egiptora itzuli, Stralsundeko (Alemania) Santa Maria elizak piramide handienak baino bost metro gehiago baitzuen. ■



gaztezulo




943 457 250
harpidetza@gaztezulo.eus



640122382

#harpidetza22
euro baino ez urtean



Goiko argazkietan, Bergarako Aritz eta Aguraingo Naroa, Durangoz geroztik ARGIAkoak. Beheko argazkian Bernardo Atxaga letxuga eskuan, Jakoba Errekondorekin liburu trukea egin berritan.

“Diseinu berria garbiagoa da. Arnasa ematen dio testuari”.

Leire Narbaiza

“Beranduegi paperean? Bideoan behar zuen!”.

Xabier Rico

DURANGOKO AZOKAKO ARGIAREN GUNEA

Eman eta hartu

Aurten Durangoko Azokako ARGIAren standa truke azoka bihurtu da: harpidedunek astekari berrituaz duten iritzia zintzo eman dute (goiko adierazpenetan irakur ditzakegu batzuk). 50 kide berri inguratu dira harpidetza egitera (goiko argazkien bidez egin diegu ongi-etorria). Jakoba Errekondoren kontsultan etengabe aritu dira jakobitak zalatzak argitzen, nork bere herriko hitzak ezagutzera ematen...

Plaza irekia

Elkarrekin gustura egoteko lekua izatea nahi genuen, eta horregatik, gunea irekia sortu dugu, propio: hiru stand elkarren ondoan, haietatik bi mahairik gabe. ARGIA komunikazio proiektua eta aurten martxan jarri duen Bizi Baratzea proiektua, biak uztartu ditugu azokan. Horretarako, “Erein kazetaritza independentea” eta “Txikitik eragiten” mezuak zabaltu ditugu, eta Ainara Azpiazu “Axi”ren mural ederrak marrazkiz irudikatu du ARGIAk eta Bizi Baratzeak partekatzen duten alako bizitzeko modu alai bat.

Inguratu den hankabiko orok bizitza txiki bat (letxua, uaza) eraman du etxera, han handi egin dadin (txikitik eragiten, horrela ere).

Emaitzak? Ospatzekoak

Twitterren #darpidegu hitza daramaten txioen zerrendan sartzea aski dugu ohartzeko harpidetza egin duzuen gehienak gazte jendea zaretela, Euskal Herriko lau haizetakoak, dagoeneko ARGIA tabernan, gurasoen etxean edo Interneten irakurtzen duzuenak. Bizi Baratzea liburuaz zer esan? Ustez soberan eraman genituela eta gehiagoren bila etorri behar izan genuela. Euskarazko liburuetan historia egin duen irakurle kopurua lortu du, eta erdarakoe-tan ere, gutxi fio!

Eta batez ere, beste urtebetez denak emanda jarduteko indarrak hartuta itzuli gara langileok. Une batzuetan festaleku bihurtzera iritsi zen. Hurrengo urtekoa harreman trukerako are indartsuagoa izan dadila! ■

“Linea bat mantentzen du eta hori inportantea da. Medio independenteak ez dira asko”

Edurne eta Imanol,
ARGIAko harpidedunak



Sare sozialetan #darpidegu kanpaina egiten ari gara.

Goiko irudietan: Erractus-eko ki-deak Durangon #darpidegu egin aurretik eta ondoren.



AGENDA

Pirritx eta Porrotxen Amalur lan berriaren aurkezpen emanaldia, ARGIAren alde

- ARGIAren Adiskideak Usurbilgo Taldeak, urtero bezala pailazoan emanaldia antolatu du.
- Abenduaren 19an, larunbata, 17:00etan Usurbilgo Oiarde Kiroldegian.
- Sarrerak eskuragai: ARGIAra deituta; Usurbilgo Bordatxo eta Marije tabernetan; Lasarteko Artizar tabernan; Hernaniko Leokadisti liburu dendan; Urnietako Ezeiza Etxean; Martuteneko Arantzazuko Ama Ikastolan eta Astigarragako Ikatza tabernan.



GARESTIA AL DA ZINEMARA JOATEA?

“Zinema aretoetako sarreren prezioa? Lotsagarria!”, “familian lau gara. Sarreren prezioei krispetak gehituz gero, hilabeteko soldata bertan utziko genuke!”, “ni ez noa zinemara dirutza hori uztera, askoz hobeto nago etxeko sofan, nire telebista erraldoiari begira”. Zenbatetan entzun edo esan dituzue esaldi horiek?



Gaizka Izagirre
@Gaizka_Izagirre

Zergatik gustatzen zaigu hainbeste txar-telen prezioaz kexatzea? Benetan garestia al da zinemara joatea? Kontzertu batera joateagatik 40 euro ordaintzea ez al da lazgarria? Asteburutako gin-tonic barkaezin horrengatik ordaintzen ditugun 8 euroak? Zergatik gezi guztiak beti zinemari?

Lehen, ohikoa zen koadrillan joatea, edo bakarrik. Nire ustez, arazo guztia lehentasun kontu hutsa da. Alegia, ai-

sialdi ohituren aldaketei. Nire lehen-tasun zerrenda mentalean, adibidez, zinema lehen postuan azaltzen da. Ondorioz, prest nago aisialdian xahutzen dudaren diruaren portzentaje altu bat horretara bideratzeko, gainerako bizio guztiak baztertuz ala gutxiagotuz.

Prezio horretan eragin zuzena duten faktoreen artean, BEZaren igoera lotsagarria eta sistema analogikotik digitalera igarotzeko hainbat aretok eginiko inber-

tsioa –200 milioi euro ingurukoa– nabarmendu daitezke. Baina bada gutxitan aipatzen den beste alderdi bat ere: zinema areto txikien desagerpenak izan duen eragina. 1990eko hamarkadako adreiluaren “boom”ak merkataritza-gune erraldoiak eraikitzea bultzatu zuen. Bertan zinema areto deigarriak sartu zituzten, noski. Horrek herri eta hirietako zinema areto txiki zoragarrien desagerpena eragin zuen. Munstro horien barruan “guztia egin dai-



TARTAREN BANAKETA

Demagun, borobilduz, 8 euroko kostua duela sarrera bakoitzak. Sarrera hori, esku artean hartuz gero eta zati-tan banatu beharko bagenu:

- %21 **BEZ zerga** (1,68 euro).
- **Egile-eskubideak**, %3 (0,24 euro).
Hasierako banaketa horrekin, **6,08 euroko irabaziaz geratzen dira**.
Ekoizlea, banatzailea eta zine-aretoaren artean banatzeko (datu hauek, negozioaketa araberak aldatzen joaten dira).
- **Zine aretoak**, %35 (2,80 euro).
Nabarmena, hau ez dela aretoen diru-sarrera bakarria. Horri, krispetak, edariak eta abar gehitu behar zaizkiolako.
- Gainontzekoa, %41, **banatzailea** (*Majors* deiturikoak: Sony, Universal...) eta **ekoizlearen** artean banatzeko (3,28 euro)

tekeela” esaten dute batzuek, “bertatik irten gabe gainera” (uf!). Umeak kolorezko bolatxo beteriko kaiola itogarrietan uzten dituzten bitartean, jan, edan, erosketak egin eta noski, eguna amaitzear dagoanean, film bat ikustera joan. Arazoa? Egun osoan gastaturiko dirutzari, krispetak, edaria eta sarreren prezioa gehituz gero, etxera iristean sentituko dugun izualdia sekulakoa izango dela. “Baina non gastatu dut nik dirutza guzti hori?”. Erantzuna, klasiko bat. Pixar faktoriaren azken filma izan da erruduna, nola ez. Hortik aurrera, dena prest hasieran aipatutako edozein esaldi ahoskatzeko.

Gai honekin lotuta, aurten ere izan dugu usadio bilakatzen ari den “Zinemaren festa” delakoa. Hiru egunez hainbat zinema aretok sarreren prezioak nabarmen jaisten dituzte. Sekulak ilarak eta jendea tropelean aste horretan, etorkizunik ez balego bezala, bizpahiru film irenstea helburu. Garrantzitsua da arrakastaren “argazki” hori komunikabide guztietan zabaltzea. Zoritxarrez festa horrek lortu duen bakarria “sarrerak garestiak diren ala ez” eztabaida piztea izan da. Baina benetan errentagarriak al dira horrelako ekintzak? Zergatik ez urte osoan prezio horiek mantendu? Pentsaezina delako egunero milioika ikusle joango denik. Pintxo-potea edo

merkealdiak bezalakoa da. Urte osoan beharpenak egongo balira, ez litzake ilararik izango, ziur. Bestalde, festa honetan, zinemaldi ala ekintza kultural askotan loratzen den faktore oso tipiko bat azaltzen da, “postureoa”. Aretoak gainezka daude egun horietan, jendea zorutzen film suediar bat jatorrizko hizkuntzan ikusteko. Hori bai, gainerako egunetan egoera irauli egiten da nabarmen. Beraz, ikusleak geroz eta gutxiago direla argi dago. Prezioei botatzen diete errua.

“Goikoek” aldiz, orain arte aipatu ez dudana pirateria famatuari. Haien ustez, horixe da suntsitu beharreko orban nagusi eta bakarria, deskarga ilegalak. Liskar hau ulertzen saiatzeko, bien erdian kokatuko naiz. *8 apellidos vascos* filma ikustera tropelean joan ginenean ala Euskal Herrira aste honetan iritsi zaigun *Star Warsen* film berriak zifra guztiak lehertzen dituenen, nor gogoratzen da prezioez? Aldiz, errua pirateriarenarena bada, zergatik egiten dute gainezka aretoek adibide konkretu horietan? Erraza. Gainerako kasuetan ez direlako benetako baliabideak jartzen. Nola liteke AEBetan estreinatzen den film bat Euskal Herrira urtebete geroago iristea? Film, aktore ala zuzendari konkretu baten zale amorratu batek zer egingo du kasu horretan? Hiru aukera

dauzka: denbora tarte luze eta lotsagarri hori itxoin –eta gainera bikoiztuta ikusi; baina eztabaida hori beste baterako utziko dugu–, jatorrizko herrialdeetan DVD/Bluray formatuan argitaratzen denean internet bidez erosi edo bestela, deskargatu, jakina.

Amaitzen joateko, eta pil-pilaren saltsa baina lodiagoa den gai honen alderdi guztiak mahai gainean jarri ostean, hauxe da daukagun egoera. Korapilo hau askatzeko ahalmena dutenek konponbiderik jarri nahi ez duten bitartean, daukagunarekin konformatu beharko. Beraz, izenburuko “Garestia al da zinemara joatea?” galderaren erantzuna, “bai” biribil eta erraldoia da noski. Baina gainontzeko beste jarduera gehienak bezalaxe. Horretan bidezkoak izatea tokatzen zaigula uste dut. Aisialdirako bideratua dugun diru hori, lehenatasunen arabera banatu edo, bestela, sastadak albo guztietara. Dena den, zinema hain gustuko izanez gero, eta ez joatearen arrazoi bakarria prezioa bada, zirkuitu alternatibo oso interesgarriak ere badaudela argi izan. Donostian, Tabakalera eraman berri duten Nosferatu ziklo mitikoa datorrit burura, adibidez. Beste hiri eta herrietan ere badira kultur etxeak eta zineforumak; baita unibertsi-tateetan eskaintzen diren filmak ere. ■


KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Bizitza literario bat



Saioa Ruiz



Neguko egunerokoa
PAUL AUSTER

Itzultzailea: Oskar Arana
Txalaparta, 2015

Gorrotu dut pertsona batek bere autobiografia idazteari ekiten dionean. Zer pasatu behar zaio burutik, bere bizitzak liburu bat merezi duela pentsatzeko?

Betidanik uste izan dut, eta baliteke okertzea, bi arrazoik bultza dezaketela pertsona bat bere autobiografia idaztera. Lehena, errekurso falta. Hau da, kreatibitatea agortzen hasi zaionaren seinale, eta hortaz, bere azkenetan dagoen idazlea delako. Eta bigarrena, kreatibitate hori inoiz ez da existitu eta, beraz, idazle frustratu bat delako. Ez da inondik ere gure idazlearen kasua.

Esan gabe doa, Austerrek luze eta sobera irabazi duela idazle izatearen meritua. Nik hamasei urterekin ezagutu nuen eta harrez geroztik kuttunetarikoa dut, horregatik barikatzen diot bere bizitzaz idatzi izana. Bere hitzetan bidaiatzea plazer hutsa da niretzat, baina egia da azken urteotan bere kreatibitatea agortzen hasia dela istorioak asmatzearen kontuari dagokionean. Oso kontzientea naiz nire zorrotasunaz, kritikatzeara delako, batez ere kritikarioi idazle frustratuak garelako leporatu zaigunean.

Neguko egunerokoa (*Winter Journal*, 2012) ez da edonolako autobiografia, eta ez dauka zerikusirik idazlearen gaineko liburuekin. Baina, onartu beharra dut, irakurri dizkiodan guztien artean austeria-noena dela.

Metaforikoki neguari lotuta dauden zahartzaroaren lehen aztarnek bultzatu dute Paul Auster barrura begiratzera. Bere memoriaren proiektio honetan zehar, sei urte zitueneko neguarekin hasi eta hirurogeita bost urteko neguarekin amaitzen diren haririk gabeko diapositiben nahasketa

bat eskaintzen digu. Horrela datoz oroitzapenak askotan; gainjarrita, nahasirik.

Autobiografiatik aldentzen duen ezaugarrietako bat darabilen bigarren pertsona da: "Pentsatzen duzu zuri ez zaizula inoiz gertatuko" (7. orria). Bam! Austerren esaldi tipikoenetako bat. Erradiografiak begiratzaren dituen medikuaren antzera, gorputzetik atera den arimak idazten du bizitzak utzi dizkion arrasto fisiko eta emozionalez hausnartzeko: "Orbaina meheagotu egin da urteekin, baina oraindik ere hor dago bila hasten bazara, eta zorte onaren ikur hori aldean eramango duzu hilobira arte" (13-14. orriak). Erantzunen bila dabilen arima ere bada: "Ikusirik zure iraganeko porrotak, zure irizpen okerrak [...]. Saiatu zara asmatzen zortearen ustekabeko aldaketa horren arrazoa. Baina inoiz ez duzu aurkitu erantzunik" (224. orria). Horrela, Austerren bereizgarria den efektu metaliterarioa antzematen dugu: irakurtzen dela idazten duen idazlearena.

Neguko egunerokoa bere obra osoaren sintesizat har daiteke. Bizi bat literatura bilakatu edo literatura bizitza bilakatu. Ba al da gauza ederragorik? ■



» TELEGRAMA

Astelehenetik martxan da Bilbon **BALA azoka**: Bizkaiko hiriburua arte liburuaren topagune bihurtuko da hilaren 20a bitartean, eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte azokaren inguruan **STOP Feministaldia** antolatu dute Donostian, praktika kultural feministen inguruko gogoeta proposatzeko: abenduaren 19an amaituko da Urgulleko Guardetxekeo festarekin **STOP Rafael Berrio** ariko da Donostiako Garoa Kultur Labeko Paperezko Kontzertuak sailean: abenduak 20, Gros auzoan **STOP**

» MUSIKA

Estreinaldi polita



Joxi Ubeda

**HAN.**

HAN.

Bonberenea Ekintzak, 2015

Aurreneko gitarra akordeek harrapatuta berehala murgiltzen gara HAN. Eloorrioko (Bizkaia) taldearen lehen lanean. Energia handia, melodia politak, pasarte hunkigarriak eta denbora erdiko rock erritmoak entzun daitezke diskoan. Doinu trinkoa gauzatu dute eta kantuek indar handia transmititzen dute.

Diskoa bi urteko lanaren emaitza da. Kantuak ongi landuak daude, arretaz, eta moldaketa eta xehetasun guztiak ongi neurtu eta burutu dituzte. Grabazioa, nahasketak, masterizazioa eta ekoizpena Karlos Osinagak egin zituen udan. Lan bikaina egin du, eta diskoa ozen, indartsu eta garbi entzuten da.

Haurra eta *Han* kantuen hitzak Joseba Sarronandiaren eta Oier Guillanen poemetan oinarrituta idatzi dituzte, eta gainerakoak Andere Toledoren laguntzaz. Beste hainbat laguntzaile ere izan

dituzte: Aitor Etxebarriak *Muxuak* kantuan abestu eta didjeridu musika tresna jo du, Ibon Bilbaok *Narru azal mendian* kantuan abestu du, eta Itziar Bastarririkak, Libe Gazteluk eta Iker Naftak azalaren diseinua egin dute.

Maitasuna, aske izateko nahia eta beste hainbat gai hizpide dituzte kantuetan. Esaterako: "Gordelektutik at aspaldi irtenak eraikiarazitako hormetan aske izaten aske! Amildu arte, hormak amildu arte!" (*Igeri egiten*); "Norbaitekin gaizki ulertua gehiago korapilatu beharrean berarekin ohean bota eta deskorapilatzea da poesia" (*Poesia*) eta "Pariseko merkatu zabalean lorazko alkandorak dituen postuaren aurrean dantzatuko dut madam baten itxurapean" (*Madam*).

Gorka Molero (gitarra), Karlos Gomez (baxua), Miguel Leon (bateria) eta Nerea Lersundi (ahotsa) dira taldeko kideak. HAN. sortu aurretik, Ama Say, Las Ratas, Mokaua, Non Demontre, Antton, Yakuzi, Tunnel 483 eta beste hainbat taldetan aritu dira. Gorka eta Karlos eskarmentu handiko musikariak direla nabarmena da, Miguelek erritmoa zorrotz eta indar handiz ermaten du, eta Nerea ere kemen handiz aritzen da. HAN. taldea bere lehen musika egitasmo ezaguna da, baina ez du ematen bere lehen diskoa egin duenik, erraz eta eroso aritu dela ematen duelako.

HAN. zeresana emango duen taldea izango da. Bere kantuetan zerbait berezia antzematen da. Taldeak argi dauka zer nahi duen eta nola egin, eta ganoraz egiten du. ■





GOIENA

2zio

Hitzak harrapatzen



Andrea Zubozki

Pasa den larunbatean, Aitzina Iparraldeko gazte mugimenduak kontzertuak antolatu zituen Hazparneko Ttattola gaztetxean. Bertan, 2zio taldea aurkitzen zen.

Nahiz eta han ez izan, haien ikusteko aukera izan dut pasa den hilabeteetan. 2015 honetako irailean atera daukute bigarren diskoa: *Bideak*. Eta geroztik kontzertuz kontzertu ibili zaizkigu.

Pertsonalki ez naiz biziki rapzalea. Baina euskal rapa geroz eta gehiago gusatzan zait, sustut 2ziorena egia erran. Rapean hitzek duten lekua biziki inportantea da, eta euskaraz direnez, gehiago hunkitzen naute. Horrez gain, 2zioren idazkera ederra da; hitzak “xuxenak” dira, neurri onetan kantatuak... Buruan errazki sartzen dira. Eta kontzertuetan ahotik ateratzen.

Beraz! 2zio! Hiru tipo eszena gainean. Gibelean, sample ta scratchetan, Jo. Honen ditu haien musikak sortzen, eta zuzenean berriz botatzen, *zkratxatzen*.

Rapeatzen du baita ere, hitzen inportantzia azpimarratuz.

Eszena aitzinean, Gorka eta Odei, biak rapeatzen. Haien lana perfektuki betetzen dute. Xuxen (bai! Rapeatzea ez da mintzatzea! Nota batzu badira!) erritmoan, oholtza okupatzen dute espazio guziak erabiliz. Bien ahotsak tonu apalengan kokatzen dira, eta horrek lasaitasun natural bat ekartzen du. Ez da rap ahots gora agresibo horietarik.

Publikoan, jendea ikus entzunari behatzen, begi eta belarriak aitzinerat zkotxaturik; eszena gaineko argiek deitzen gaituzte, eta soinua... min egiten dit horren idazteak... baina bai, ikaragarria da!

Min, ordenagailuak baino intsrumentuak nahiago baititut oholtzetan. Baina hala da, 2zioren musika ultra indartsua da (estilo horretan aurkitzen den musika bezala azken finean), baxuak ultra baxu dira, elementu perkusiboak ultra perkusibo... ez naiz luzatzen, ulertu naizue!

HURRENGO KONTZERTUAK

ABENDUAK 18, ANOETAKO GAZTETXEAN
ABENDUAK 26, GASTEIZKO GAZTETXEAN

Arazo izpirik gabe, erraza da kontzertuan sartzea, naturalki jantzen da kaputxa! Orain arte egin dituzten bi diskoetatik aukeratu kantuak eskaintzen dauzkigute zuzenekoetan.

Kontzertuan, biziki plazergarria da hitzak ezagutzen direlarik haiekin rapeatzea. Plazer hartzen dut haien hitzekin; gai orokorrez gain, urrunago doa taldea, gaur egungo munduari merezi zaizkion kritikak emanez. Eta onartuz gu ere mundu honen parte girela.

“Hibernazio-latz honi-emazkiok-zor-zaizkion-akzioak, fikzioa-gure errealtatearen-bizio bilakatu aitzin!” Horrelako esaldiak sortuz, kontzertutik sartu naiz etxerat!

Hara! Ene artikulua horretan bukatzen da! Azken esaldi bat hala ere bukatu aitzin; berrikitan agertu zaukun “euskal-musika-...” eztabaidari, hori gehitu nahi nuke: “Lasai! Oraindik talde onak badira Euskal Herrian!”

Eta 2zio haietako bat da. ■

Egilea: Ana Zambrano

Hitz gezidunak

Gaia: Oskorri

| | | | | | | |
|---|---|---|-----------------------------------|--|--------------------|------------------------------------|
| ① BALITU | AUSAZ 51, ZENBAKI ERROMA- TARREZ | EUSKAL FONEMA IZAN, EDUKI | ② ARGI | ZERORREK | ELAIA LASAI | GAUZA, KAPAZ FRUITU LATZA |
| TINKO, IRMO GAREN HAUEK | BEREHALA XAHUPEN, KOSTU | LUKUR EGUNKARIA, BERRIPAPERA | NARDO UMORE, GATZ | ARRAZA KOADERNO | KAIA ③ | BARAZKI HOS- TOTSUA |
| EGUZKIAREN ARGI (BI HITZ) ARGI-IZPI | ZEUREAK EZKUTATU | ZEUREAK EZKUTATU | ZEREZ ATZIZKIA IZAERA, JITE | ABERE TALDEA MEHE | POZKOR, ALEGERA | |
| BELARRIZ, ENTZUMENA- REN BIDEZ | ⑤ PILOTA JOKOAN JARTZEA | ④ EZTI EKOIZLEA | ABERE TALDEA MEHE | OINARRIZKO EDARIA ERDI, HITZ ELKAR- TEETAN | LITROA ⑥ | |
| URREAREN IKURRA LANDA, SALBU | TXANTXAR LEHERGAI EZAGUNA | AZKAR, BEREHALA KONTSONAN- TE BIKOITZA | NAHI BIZIA, GUTIZIA TONA | GOIKO ALDE, GAILUR | | |
| ELIZ KANTARI NORBAITI TORTURA ERAGIN | LISTU EZ EME | | | | | |

Jokoa ebazteko lagungarri izango dituzu definizio hauek:

① ... *testamentue*, haurrentzako lehen diskoa, Bizkaia guztian zehar ia ahazturik zeuden haurrentzako abestiak errekuiperatu zituzten disko honetan. Kukubiltxo antzerki taldearekin aurkezten zuten argi, soinu eta kolorez beteriko ikuskizunekin, eta arrakasta handia izan zuten gazteen artean.

② *Hamabost urte eta gero ...*, 1987ko martxoaren 21ean eta 22an Oskorrik bere hamabosgarren urteurrena ospatu zuen Bilboko Arriaga Antzokian eta bertan zuzeneko disko hau grabatu zuten.



PERU URRESTI

③ Bilboko idazle eta poeta honen omenez atera zuen taldeak lehen diskoa, 1975ean. Idazlearen bertsotan oinarritutako hamar konposizioki osatzen dute diskoa.

④ 44 urteko ibilbidearen ostean, 2015eko azaroaren 22an agurreko kontzertua eskaini zuten Bilboko antzoki honetan.

⑤ ... de Felipe, taldeko sortzaileetarikoa, 1971n sortu zuen Oskorri hiru lagunekin, baina bi urte geroago, gainerako hiru kideek taldea utzi eta Antxon Latxa aspaldiko laguna eta Bixente Martinez gehitu zitzaizkion; horiek ere azken egunera arte egon ziren taldean. Taldeko ahots nagusia izateaz gain, gitarra eta perkusioa jotzen zituen.

⑥ ... *fraganti*, taldearen sorreraren hamabosgarren urtebetetzean atera zuten diskoaren izena. 1971n hasi zen Oskorri taldearen ibilbidea; 30 disko baino gehiago argitaratu zituzten.

Soluzioak

| | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|--|---|--|---|--|---|--|---|--|---|--|---|
| T | | | A | | E | | I | | G | | B | | K |
| O | X | | T | | N | | N | | U | | A | | L |
| R | A | | U | | T | | S | | E | | L | | E |
| T | N | | T | | Z | | A | | U | | T | | N |
| U | T | | U | | K | | A | | N | | A | | K |
| R | R | | E | | A | | R | | A | | K | | Z |
| A | E | | L | | R | | Z | | U | | R | | G |
| T | | | A | | I | | A | | R | | E | | A |
| U | T | | S | | E | | R | | E | | A | | K |
| | I | | T | | E | | I | | A | | K | | U |
| T | R | | E | | L | | K | | N | | A | | R |
| I | R | | R | | U | | I | | A | | G | | A |
| N | I | | A | | A | | A | | S | | A | | A |
| I | A | | L | | A | | A | | Z | | A | | I |

Fermin Erbiti. Nafarroako ikastolen historiaren kronikagilea



1965ean, guraso batzuen ausardiari esker, Uxue ikastola sortu zen Iruñean, hamabi ikaslerekin. Hiriburuko ekimenari jarraituz Nafarroako zenbait herritan ikastolak sortuz joan ziren: Etxarri Aranatz, Tafalla, Lizarra... Fermin Erbiti kazetari iruindarrak 50 urte hauetako testigantzak eta argazkiak batu ditu *Ametsa egia* liburuan. Mende Erdiko ibilbidean ezinbestekoak izan diren euskaltzale guztiei omenaldi eta esker oparia.

“Nafar ikastolen sorrera benetan harrigarria izan zen: liburu gabe, irakasle gabe...”



Amaia Zabala Tolosa

@Amaia_Zabala

ARGAZKIAK: JOSU SANTESTEBAN

Historiak

“Historiak jaso eta kontatzea, ahalik eta txukunen. Horixe da batxilergoa amaiturik aukeratu nuen profesioaren muina. Guk profesioa aukeratu, bai, baina menturaitsuak sekula pentsatu gabeko bideetan barna eramaten gaitu. Zenbakiak gorroto zituen gaztetxo hark auditoria-txostenekin lan egingen zuela jakin izan balu! Eskerrak goizeko zenbaki-saltsaz gain badela besterik, desorduetan bada ere: irakurgai gozoagoak, historia interesgarriagoak. Ikastolenak, esate baterako”.

Nondik sortu zen liburuaren ideia?

Nafar ikastolen 50. urteurrenoko ekitaldiak antolatzerakoan atera zen. Nafarroako Ikastolen Elkartearen (NIE) batzorde bat sortu zen hau guztiau antolatzeko, eta egokitzat jo zuten mende Erdiko ibilbidea islatuko zuen liburua argitaratzea. Enkargua egin zidaten eta baiezkoa eman nuen, oso gustuko gaia dudalako. Askatasun osoa eman zidaten liburuaren nondik norakoak finkatzeko, eta hori ere eskertzekoa da. Alde horretatik, aipatzekoa da mende Erdiko kontuak ez zik aurreko zenbait historia ere bildu ditudala, bestela nekez ulertzen baita ikastolen mugimendua: Campion eta XIX. mendeko beste euskaltzaleen lana eta, bereziki, gerra aurreko euskal eskolak.

Liburuaren lehen kapitulua eskaini diezu aitzindari haiei.

Bai. Campionek-eta ahalegin handia egin zuten galbidean zegoen euskara indartzeko, Nafarroako Euskara Elkar-

goaren bitartez. Campionek esaldi batekin laburbildu ohi zuen bere arrangura: “Batzuk bagoaz eta inor ez dator”. Bada, 30eko hamarkadan Iruñeko Euskal Eskolaren sorrera ezagutu eta “Batzuk bagoaz, baina beste batzuk datoz” esan zuen. Gerra aurreko urteetan ere, beraz, euskaltzale batzuek argi ikusi zuten euskararen etorkizuna eskolan jokatzen zela. Horregatik sortu ziren Iruñea, Lizarra eta Elizondoko euskal eskolak. Tamalez, hura guztia 1936ko uztailaren 18an amaitu zen. Eta, zorionez, handik 30 urtera beste ameslari batzuek lanari ekin zitoten, gaur egungo ikastolak sortzeko.

Lan mardula egin duzu. Zein pauso egin duzu eta zein bitarteko erabili duzu sortzaileekin harremanetan jartzeko?

Batetik, dokumentazioa aztertu dut. Ikastolena, gerra aurreko euskal eskolei buruzko kontuak... Ondoren, ikastola guztiak bisitatu ditut, bakoitzaren ibilbidea ongi ezagutzen dutenekin el-



“Zenbait herritan agintariak, eskolako irakasleak eta herriko jende askok eraso gupidagabea eta zikina egin zioten ikastolari”.

kartzeko: sortzaileak, irakasleak, gaur egungo arduradunak... Testigantza horiek funtsezkoak izan dira. “Gogoko tokian aldaparik ez”, dio esaerak. Bada, horrela ibili naiz azken hilabeteotan: lanpeturik, ohiko lanaz gain liburua egin behar nuelako; baina pozik, oso interesgarria eta aberasgarria izan delako. Ikastolen historia eta, batez ere, ikastolen historiak ezagutarazteko nahia da hau.

Mugimenduaren sorrerako garaiak ez ziren errazak, eta pertsona haiek ere ez ziren makalak izango...

Ikastola gehienek sorrera benetan harriagarria izan zen: libururik gabe, irakasle tituludunik gabe, legeztatu gabe... Gabeziak alde guztietatik. Eta oso leku xelebreetan egin zituzten: behitegi batean, oilategi zahar batean, txanpiñoitegian, herriko komentu zaharreko txoko ilun batean... Epika handiko garaia zen. Gaurko talaiatik ikusita, barregarria ere izan liteke. Hura bizi zutenentzat, berriaz, nahiko gogorra. Horrek ederki era-

kusten du zenbaterainoko ilusioa eta indarra zuten euskaltzale haiek.

Gogortasun horren adibideren bat?

Zenbait herritan agintariak, eskolako irakasleak eta herriko jende askok ikastolari egin zioten eraso gupidagabea eta, askotan, oso zikina. Batez ere Tuteran, Viana eta Irunberrin.

Zure hitzaldietan sarritan aipatzen duzu Jesus Atxaren pasarte hura.

50 urteotan Nafarroako ikastolak bide malkartsuan ibili dira, haizea beti kontra, eta ez bakarrik frankismoaren garai ilunean, ondoren ere. Hemengo ikastolen bultzatzaile sutsu izan zen Jesus Atxak ederki laburbildu zuen Manuel Lekuona Saria jasotzean, Sanz lehendakari-ohia ondoan zuela: “Nafarroan autobide batzuk egin dira azken urteotan, autoa hartzean erosoago ibil gaitetzen. Euskaldunok, ordea, betiko bide estu eta neketsuetan barna ibili behar dugu oraindik ere. Noizko guretzako autobiodeak?”.

Zein etapa bereiziko zenituzke 50 urteko historia honetan?

Ikastola gehienak 70eko hamarkadan sortu ziren. Hurrengoan legeztapenak etorri ziren eta 90ekoan ikastetxe duinak egiten hasi ziren. Hori izan daiteke laburpen argiena.

Ikastolek hasiera bateko izaera bera dutela esango zenuke?

Ikastolen ezaugarri nagusiak, nire ustez, hiru dira: euskara eta euskal kulturaren defentsa, pedagogia berritzaile batean aldeko apustua eta gurasoen parte hartzea. Egia da gizartea nabarmen aldatu dela azken bost hamarkadetan, baina ezaugarri horiek bizirik daude ikastoletan.

Etorkizunari dagokionez, zer hausnarke-ta egiten duzu?

Ikastolek kalitate handiko irakaskuntza eskaintzen dutela erakutsi dute. Aipaturiko ezaugarriak eutsi eta kalitatea iparrorratz nagusitzat hartzen segitu behar da. Horrek bermatuko du, nire ustez, ikastolen etorkizuna. ■



Anasagastik eta lagunak bukatu dute Venezuelako emaitzak ospatzeko festa

Iñaki Anasagastik abenduaren 6an ekin zion Venezuelako hauteskondeek utzitako emaitzak ospatzeko festari eta asteazken honetan bukatu du ofizialki. Felipe Gonzalezek oraindik galtzontziloak aurkitu ez dituen Anasagastiren etxean jarraitzen du, baina gainerako

gonbidatuak pixkanaka beren etxetara itzultzen ari dira. "Eromen hutsa izan da, inoiz ez nuen Dale más gasolina kanta hain gogotsu kantatzen zuen kuadrilla bat ikusi", azaldu du festarekin ustekabean topo egin zuen bizilagun batek.

SAREAN ARRANTZATUA

Ez nahi dut ordaindu



Goiko meloiarekin pentsatzea komeni



Eguberriak aldarrikapen politikorik gabe pasatzeko robota

Jaurilaritzako Segurtasun Sailak "Errespetucop" robota aurkeztu zuen René Cassin sarien banaketan. Sentsibilitate guztiak errespetarazteko, "egokiak ez diren" aldarrikapenak neutralizatzeko programatuta dago. Aipatu ekitaldian, preso politikoen eskubideen aldeko banderolaren aurrean nola funtzionatzen duen ikusi ahal izan zen: indarkeriarik erabili gabe, mehatxu soil eta aspergariarekin funtzionatzen du "Errespetucop"ek. Adituen ustez Iñigo Urkulluren antz handiegia izan lezake. "Bai zera!", erantzun du robotaren sortzaileak: "Nork nahastuko ditu robot bat eta lehendakaria, ez dute ba-te-re antzik".



ARGIAKOEN (G)UNEA

Gure gaiak dira gure baloreak,
ARGIA kideak gure oinarria

OROIMEN HISTORIKOA

INGURUMENA

EUSKALZALETASUNA

ELIKADURA BURUJABETZA

INDEPENDENTZIA

PAREKIDETASUNA

DEMOKRAZIA ZUZENA

DESOBEDIENTZIA ZIBILA


GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA

HERRIEN MUNDUA

ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

SEXU ASKAPENA

Atal honetan, herri eragileen lana ezagutarazi eta urtean zehar kaleratutako materiala zozketatuko dugu hilero ARGIAko harpidedunen eta Piztu Ezazu ARGIAren bitartez ekarpen ekonomikoa egiten duzuenon artean.



ARGIAN, ia mende osoko euskarazko kazetaritza lanaren oinordeko gara. Jaso dugun ondarea zainduz, nagusiki Euskal Herrian hedatzen den proiektu komunikatiboa gara. Ondare hori jendarteratzeko asmoz, *Trantsizioak* erakusketa ibiltaria martxan jarri dugu.



*Sunti Amilibiaren GERRAKO
IPUINAK.*
Ipuin liburua.

3 ale

INTXORTA 1937 Kultur Elkartea
www.intxorta.org



*Gerra Zibila Debagoieneko
herrietan.*
Liburuak eta dokumentalak.

2 sorta

INTXORTA 1937 Kultur Elkartea
www.intxorta.org



*Aldaba Joka. Hernaniko
ahozko historia txikia.*
Liburua eta DVDa.

3 sorta

Dobera Euskara Elkartea
www.dobera.eus



*Euskararen Kate hautsiak eta
Frankismoa Euskal Herrian.*
Liburuak.

2 ale

Euskal Memoria Fundazioa
www.euskalmemoria.eus

Herri mugimenduko eragilea bazara eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan

PARTE HARTZEKO

☎ 943 371 545

gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea

Lleida, Katalunia zuria

11  **ESKIGUNE**

Aranza • Baqueira Beret • Boí Taüll Resort • Esport Esquí • Lles de Cerdanya • Port Ainé
Port del Comte • Sant Joan de l'Erm • Tavascan • Tuixent-La Vansa • Virós-Vallferrera

aralleida.com App [aralleida365](#)      

